




Astigarragako Udala



Astigarragako diagnostiko demografikoa eta Herri-Eskolaren eskariaren proiektua

2030 ikusmugan

Donostia, 2019ko azaroak 5



Berio Pasealekua 11, 20018 Donostia
Tel. (+34) 943 31 00 34
siadeco@siadeco.eus / www.siadeco.eus

Siadeco^x
ikerketak aplikatua

Aurkibidea

0. Planteamendua	3.
1. Astigarragaren kokapena eta ezaugarri espazialak.....	5.
2. Biztanleriaren bilakaera eta egitura demografikoa.....	10.
3. Etxebizitzaren azterketa eta erakarritako biztanleria	21.
4. Eskolatzeko-adinean dagoen biztanleria eta Herri-Eskolako ikasleak: azken urteetako bilakaera	26.
5. Herri Eskolako obra-batzordeak egindako aurreikuspenen azterketa	42.
6. 2030 arteko jaiotzen prospekzioa	49.
7. Herri Eskolarako ikasle eta talde proiektzioak: horizontea 2030.....	67.
8. Laburpena.....	89.

0.

Planteamendua

0.1. Helburuak

Astigarragako Udalak egindako eskaerari erantzunez, honakoak Siadecok proiektu honen helburu nagusi gisa egitea planteatzen dituenak:

- ▶ Egoera soziodemografikoaren diagnostikoa, eta egungo hezkuntza- eskaintzaren eta hezkuntza-eskariaren diagnostikoa, udalerriko Herri Eskolari dagokionez. Baita bi gai horien arteko erlazioa aztertzea. Horrek, aukera emango du Herri Eskolaren hezkuntza-eskaintza, udalerriri berak duen hezkuntza-eskaera errealarekin eta potentzialarekin erkatzeko.
- ▶ Astigarragako Herri Eskolako ikasleen etorkizuneko eskaerari buruzko azterketa prospektibo bat, 2030ean finkatu dugun horizonte baterako. Landuko den hipotesia da Herri Eskolak, Haur Hezkuntzaz (HH) eta Lehen Hezkuntza (LH) eskaintzeaz gain, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) ere eskaintzea. Denbora-muga edo horizonte hori ezartzen bada ere, ikasleen prospekzioa eta horretatik sortuko diren talde/ikasgela kopuruak (dagokien ratioa aplikatuta) ikasturte bakoitzerako eta hezkuntza etapa guztietarako eratuko dira. Ikasturte bakoitzean kalkulatu da zenbat ikasle eta zenbat talde/gela dauden, hezkuntza- eskaintza 16 urtera arte zabaltzeko arestian azaldu dugun hipotesiaren arabera ere.

0.2. Proiektuaren egitura

Bi helburu horiek lortzeko, proiektua honako alderdi hauetan egituratu dugu:

- Izaera grafiko nabarmena duen azterketa labur bat egin dugu, udalerraren kokapen eta ezaugarri espazialak azalduz. Azterketa horretan, besteak beste, garrantzi handia ematen zaio Buruntzaldea eta Donostialdea eskualdeetan kokatuta egoteari, eta batez ere, Donostiatik hain hurbil egoteari (Donostiari atxikita ere izan zen 1947tik 1987ra).
- Udalerraren bilakaera edo egitura demografikoari buruzko azterketa sakona egin dugu, aurrera eramango ditugun etorkizuneko planteamenduetarako garrantzitsutzat jotzen ditugun hainbat gai jorratuz.
- Hirugarren atalean, biztanleriaren hazkundera azaltzen duen etxebizitza-parkearen gorakada aztertzen da. Etxebizitza berrien okupazio maila altua eta sortutako familia nukleo kopurua ere azaltzen dira.
- Laugarren atalean, Astigarragako Herri-Eskolak azken ikasturteetan izan duen ikasle eta talde kopuruen deskribapen zehatza egiten da; eta ikasle kopurua, Astigarragan eskolatze-adinean dagoen biztanleriarekin alderatu, Herri-Eskolak izan duen matrikula-kuota kalkulatzeko.
- Bosgarren atalean, Herri-Eskolako obra-batzordeak datozen 5 ikasturteetarako egindako ikasle aurreikuspenak txertatu dira, talde kopurua handitzeak, azpiegituretan izango lukeen eragina azpimarratuz.
- Seigarren atalean 2030 urtera arteko jaiotzen proiektzioa egiten da. 2011tik hona entregatutako etxebizitzak okupatu dituzten herritarren adin-tarte eta sortu dituzten nukleoaren batez besteko tamaina eta izandako seme-alaba kopurua eta unea aztertu, eta datozen urteetako dinamika demografikoa bertsua izango dela suposatuz, 2030 bitartean urtero Astigarragan izango diren jaiotza kopurua estimatzeko ahalegina egin dugu.
- Eta amaitzeko, zazpigarren atalean, haur kopuru horrek, Herri-Eskolako ikasle eta taldeen kopuruan izango lukeen eragina azaltzen da, hiru matrikula-kuota posible planteatuz (minimoa, ertaina eta maximoa), eta DBHko zikloa ere eskaintzea aurreikusiz. Planteamendu horretatik abiatuta, bi ariketa mota egiten dira: batean, 2030. urtera arte, 2-15 urteko biztanleei zuzendutako Herri-Eskola hipotetiko baten ikasle eta taldeen proiektzioa egiten da, egun Herri-Eskolak duen ikasle kopurua kontuan hartu gabe. Bestean, aldiz, ikasle eta taldeen proiektzioa, egun Herri-Eskolak dituen ikasleetatik abiatuta egiten dugu.

1.

Astigarragaren kokapena eta udalerrriaren ezaugarri espazialak¹

1.1. Kokapena eta ingurunea

Astigarraga udalerrriak mugakide ditu Donostia iparraldean eta ipar-mendebaldean, Hernani hegoaldean eta hego-mendebaldean eta Errenteria ekialdean. Hego-ekialdetik, Donostiako Landarbaso kokagunearekin egiten du muga.


Astigarraga Hernani eta Donostia lotzen dituen GI-131 errepidearen (Urumea autobia) ondoan dago, Urumea ibaiaren ibarra jarraituz. Era berean, Hernanitik 3,5 kilometrora dago, Urnietatik 6,5 kilometrora. Errepide beretik, baina kontrako norabidean, Donostiako erdigunea 5 kilometrora dago, eta Donostiako Martutene auzoa, berriz, Astigarragatik kilometro bakarrera.

XX. mendeko 40 urte baino gehiagoan (1943 eta 1987 artean) Astigarraga Donostiari atxikita egon zen auzo gisa. 1987. urtean berriro desanexionatu zen, udalerrria eratuz.

Donostiarekin historikoki izan duen harremanak eta hurbiltasun fisikoak eragindako testuinguru horrek, udalerrriaren dinamika sozioekonomikoaren, biztanleriaren mugikortasunaren eta hezkuntza-jardueraren beraren zati handi bat baldintzatzen du.

¹ Atal honetako informazioaren zati handi bat Astigarragako 2015eko Zarataren Maparen analisisian oinarrituta lortu da; beraz, eguneratuta ez dauden gai batzuk azal daitezke.

1. irudia. Astigarragako lurralde-mugaketa



1.2. Ibilgailuen trafikoa

Astigarragako udalerririk bide-zati handi bat du iparraldean eta ipar-mendebaldean, Kantauriko Autobiari (AP-8) eta Urumeako Autobiari (A15) dagozkionak, hurrenez hurren. Bai eta Bidebitarte, Zamoka eta Txalaka industrialdeetara sartzeko udalerraren barruko bide-zatiak ere; halaber, ibilgailuen trafikoak eragin handia du GI 2132 Aldundiaren eskumeneko bidean, Astigarraga eta Errenteria arteko lotunean.

Udalerriko barnealdeko tarteei dagokienez, hiriko trafikoa "in situ" kontrolatu ondoren, eragin handieneko bide-zatiak Donostia Ibilbidea, Ergobia Ibilbidea, Troya Ibilbidea, Pilotari kalea, Nagusia kalea eta Iparralde kalea dira.

1.3. Trenbideko trafikoa

RENFEren lineak, Irun-Brinkola tartean, iparraldetik hegoaldera zeharkatzen du Astigarragako udalerrria, mendebaldeko isurialdetik, Urumea ibaiaren ibilgutik gertu, baina egun ez du geltokirik bertan.

Abiadura Handiko Trenaren ibilbideari dagokionez, Renfeko trenbidearen paralelo joango da.

1.4. Industria

Astigarraga Donostiakoa izan zen garaian, hiru industrialde eraiki ziren bere lurraldean:

Bidebitarte, 16 hektarea ingurukoa, Astigarraga eta Urumea ibaiaren artean dago, ibaiaren erriberen zati handi bat okupatuz.

Ubarburu: Martuteneko 27. poligonoaren zati zen; baina Astigarraga Donostiatik banandu ondoren, zati hau Astigarragako udal-mugaratean geratu zen. 13 hektarea inguru ditu.

Zamoka (26-2. fasea): Ergobia auzoaren ondoan dago. 12 hektarea inguru ditu.

Horri dagokionez, adierazi behar da 2006tik gertu hasi zirela Astigarragako Txalaka industrialde berriaren obrak.


1.5. Hiri eta merkataritza-jarduera

Hiri-jarduerari dagokionez, Astigarragako udalerrriak sagardoa ekoizteko tradizio handia du, eta horren inpaktu handiena urtarrila eta apirila artean gertatzen da, denboraldiko sagardoa dastatzeko aitzakiarekin, sagardotegiak bisitatu eta ostalaritza eskaintzaren jarduera nabarmen handitzen den garaia.

Sagardotegi gehienak udalerriko landa-eremuan kokatzen dira, eta egun 24 inguru dira; horietako gehienak sagardoa ekoitzi eta dastatzea eskaintzen dute sagardotegi sasoian, eta gutxi batzuk, urte osoan zehar.


Gaueko aisialdiari dagokionez, hiriguneko kale nagusien inguruan kokatzen da: hots, Kale Nagusiaren eta Pilotari kalearen inguruan.

2. irudia. Astigarragaren hirigintza-konfigurazioa




1.6. Udalerriaren ikuspegi panoramikoa

7. irudia. Astigarragako iparraldea.



8. irudia. Astigarragako hegoaldea




2.

Biztanleriaren bilakaera eta egitura demografikoa

2.1. Biztanleriaren bilakaera

Azken urteetan biztanleria hazkunde handia izan du Astigarragak; 2000. urtean 3.400 biztanle inguru izatetik, 7.000 izatera pasa da 2019an (2019ko urrian); hau da, 20 urtetan, biztanleria bikoiztu egin du.

1. Grafikoa. Astigarragako biztanleriaren bilakaera (2000-2019).



Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika. Siadecok landua, 2019

1. Taula. Astigarragako biztanleriaren bilakaera: 2000-2019. urteak

	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019/01	2019/10
Guztira	3.418	3.634	3.791	3.947	4.109	4.148	4.234	4.386	4.523	4.678	4.715	4.821	5.000	5.306	5.536	5.688	5.881	6.073	6.276	6.539	7.019
Hazkunde %		6,3	4,3	4,1	4,1	0,9	2,1	3,6	3,1	3,4	0,8	2,2	3,7	6,1	4,3	2,7	3,4	3,3	3,3	4,2	7,3
Hazkunde akumulatua %		6,3	10,9	15,5	20,2	21,4	23,9	28,3	32,3	36,9	37,9	41,0	46,3	55,2	62,0	66,4	72,1	77,7	83,6	91,3	105,4

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika. Siadecok landua, 2019

Hazkunderik handiena, 2019ko urtarrila eta urria artekoa izan da (%7,3), baina hazkunde handiak izan ziren baita ere 2012-2013 artean (%6,1) eta 2001-2002 artean (%6,3). Hala ere, urtez urteko hazkundea etengabekoa izan da.

Ez da hau ohiko bilakaera demografikoa Gipuzkoako udalerrietan, ez 2018an 5 mila – 6 mila arteko biztanleria zuten udalerrietan, ez Astigarraga kokatuta dagoen Donostialdeako udalerrietan ere.

2. Taula. Astigarragako eta Donostialdeko beste udalerrien biztanleriaren bilakaera kopuru absolutuetan (2001-2019) eta biztanleriaren igoera tasa (%).

	Biztanleria			Biztanleriaren igoera tasa (%)		
	2001	2011	2019	2001-2011	2011-2019	2001-2019
Andoain	14.308	14.824	14.945	3,6	0,8	4,5
Astigarraga	3.634	4.821	6.539	32,7	35,6	79,9
Hernani	18.364	19.444	20.013	5,9	2,9	9,0
Lasarte-Oria	17.099	18.108	18.825	5,9	4,0	10,1
Urnieta	5.434	6.094	6.190	12,1	1,6	13,9
Usurbil	5.296	6.055	6.318	14,3	4,3	19,3
BURUNTZALDEA	64.135	69.346	72.830	8,1	5,0	13,6
Donostia-San Sebastián	178.131	182.026	181.652	2,2	-0,2	2,0
Erreterria	38.001	39.177	40.141	3,1	2,5	5,6
Lezo	5.786	6.040	6.102	4,4	1,0	5,5
Oiartzun	9.271	10.013	10.351	8,0	3,4	11,6
Pasaia	16.644	16.140	16.711	-3,0	3,5	0,4
DONOSTIALDEA	311.968	322.742	327.787	3,5	1,6	5,1
GIPUZKOA	672.434	702.897	717.197	4,5	2,0	6,7
EAE	2.079.210	2.174.033	2.188.017	4,6	0,6	5,2

Iturria: Astigarragako Udala eta Eustat. Biztanleen udal errolaren estatistika. Siadecok landua, 2019

Astigarragako biztanleriak azken urteetan izan duen bilakaerak ez du zerikusirik inguruko herrien biztanleriaren bilakaerarekin; ez Buruntzaldeko eta Donostialdeko gainerako udalerriek izan dutenarekin, ez eta antzeko tamainako udalerriek izan dutenarekin ere.

Astigarragan biztanleriak ia %80an egin du gora; bigarren hazkunderik handiena izan duen udalerriak -Oriok-, %36,9 eta hirugarrenak, -Usurbilek-, %19,3. 2011. urtean oraindik Donostialdeko udalerririk txikiena zen; 2019. urtean, Lezo, Urnieta, Usurbil gainditu ditu.

3. Taula. Astigarragako eta 5 mila - 6 mila arteko biztanleria duten Gipuzkoako udalerrien biztanleriaren bilakaera kopuru absolutuetan (2001 - 2019) eta biztanleriaren igoera tasa (%).

	Biztanleria			Biztanleriaren igoera tasa (%)		
	2001	2011	2019	2001-2011	2011-2019	2001-2019
Astigarraga	3.634	4.821	6.539	32,7	35,6	79,9
Deba	5.122	5.382	5.445	5,1	1,2	6,3
Lazkao	4.781	5.302	5.549	10,9	4,7	16,1
Lezo	5.786	6.040	6.102	4,4	1,0	5,5
Mutriku	4.818	5.004	5.334	3,9	6,6	10,7
Orio	4.427	5.282	6.061	19,3	14,7	36,9
Villabona	5.401	5.755	5.906	6,6	2,6	9,4

Iturria: Astigarragako Udala eta Eustat. Biztanleen udal erroldaren estatistika. Siadecok landua, 2019

2.2. Biztanleriaren hazkunde begetatiboa eta migrazio saldoa.

Astigarragako biztanleriaren hazkunde, hazkunde begetatibo handiari eta migrazio-saldo positiboari zor zaio. Izan ere, 2001az geroztik, 1.545 jaiotza izan dira udalerrian, baina migrazio saldoa ere positiboa izan da, eta 2.100 pertsona gehiago izan dira beste bitoki bat utzi eta Astigarragan erroldatu direnak, kanpora joandakoak baino.

4. Taula. Astigarragako hazkunde begetatiboa eta migrazioaren estimazioa (2001-2018) urtez urte.

	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	Batez beste	
																			2001-2009	2010-2018
Biztanleria <i>(It: Astigarragako Udala)</i>	3.634	3.791	3.947	4.109	4.148	4.234	4.386	4.523	4.678	4.715	4.821	5.000	5.306	5.536	5.688	5.881	6.073	6.276		
Bizirik jaiok <i>(It: Astigarragako Udala)</i>	67	68	60	80	90	74	72	73	80	94	73	96	95	103	95	116	122	87	73,8	97,9
Heriotzak <i>(It: Eustat)</i>	35	27	23	24	31	24	31	29	22	29	23	28	32	33	31	32	27	35		
Hazkunde begetatiboa <i>(Jaiok - Heriotzak)</i>	32	41	37	56	59	50	41	44	58	65	50	68	63	70	64	84	95	52	46,4	67,9
Migrazio saldoa <i>(It: Siadecoren estimazioa)</i>	125	115	125	-17	27	102	96	111	-21	41	129	238	167	82	129	108	108		73,7	125,3
Migrazio saldoa <i>(It: Eustat)</i>	111	111	79	-12	52	116	115	115	10	69	169	274	178	108	143	127	123	214	77,4	156,1

Iturria: Astigarragako Udala: Biztanleriaren errolda eta Jaiotzen estatistika. Eustat: Heriotzen estatistika. Migrazio mugimenduen estatistika. Siadecok landua, 2019

2.3. Biztanleria atzeritarra

Astigarragan atzerrian jaiotako herritarrek 450 inguru dira, biztanleriarekiko %7,2. Portzentualki, presentzia baxuagoa dute atzerrian jaiotakoek Astigarragan, Donostialdeko eskualdean edo Gipuzkoan oro har baino.

5. Taula. Atzerrian jaiotako herritarrek, kopuru absolutuan eta portzentajea (2018)

	Astigarraga	Donostialdea	Gipuzkoan
Atzerrian jaiotakoak	449	31.739	68.509
%	7,2	9,6	9,5

Iturria: Ikuspegi-INE. Siadecok landua, 2019

Horien jaiotako herrialdeari dagokionez, multzorik handiena Portugalen jaiotakoa da (atzerrian jaiotako %15) eta atzetik datoz Kolonbia, Maroko eta Ekuador, %7-%8arekin.

6. Taula. Atzerrian jaiotako herritarrek jaiotako herrialde nagusiak: kopuru absolutuak eta atzerrian jaiotakoekiko % (2018).

Herrialdea	Kopurua	%
Portugal	68	15,1
Kolonbia	36	8,0
Maroko	33	7,3
Ekuador	33	7,3
Errumania	29	6,5
Argentina	25	5,6
Venezuela	21	4,7
Peru	19	4,2
Kuba	15	3,3
Frantzia	11	2,4
Txina	11	2,4
Brasil	9	2,0
Paraguay	9	2,0
Txile	8	1,8
Bolivia	7	1,6
Errusia	6	1,3
Ukraina	6	1,3

Iturria: Ikuspegi-INE. Siadecok landua, 2019

2.4. Jaiotza-tasaren azterketa

Jaiotza-tasak, epe jakin batean izandako jaiotza kopuruaren eta biztanleriaren arteko ratioa ematen digu. Ohikoena urtebeteko epean kalkulatzea da eta jaiotako kopurua mila biztanleekiko adierazten da.

7. Taula: Astigarragako biztanleriaren bilakaera eta Astigarragako eta Gipuzkoako jaiotza-tasa (2000-2018)

Urtea	Jaiotzak	Astigarraga		Gipuzkoa
		Biztanleria <i>abenduaren 31ean</i>	Jaiotza-tasa (‰)	Jaiotza-tasa (‰)
1999		3.418		
2000	52	3.634	14,3	8,9
2001	67	3.791	17,7	9,2
2002	68	3.947	17,2	9,2
2003	60	4.109	14,6	9,9
2004	80	4.148	19,3	9,9
2005	90	4.234	21,3	9,9
2006	74	4.386	16,9	10,2
2007	72	4.523	15,9	10,4
2008	73	4.678	15,6	10,4
2009	80	4.715	17,0	10,2
2010	94	4.821	19,5	10,3
2011	73	5.000	14,6	10,0
2012	96	5.306	18,1	9,8
2013	95	5.536	17,2	8,9
2014	103	5.688	18,1	9,0
2015	95	5.881	16,2	9,0
2016	116	6.073	19,1	8,4
2017	122	6.276	19,4	7,8
2018	87	6.539	13,3	7,6

Iturria: Astigarragako Udala. Eustat. Siadecok landua_2019

2000. urteaz geroztik, Gipuzkoakoa baino nabarmen altuagoa du jaiotza-tasa Astigarragak; eta azken urteetan bikoiztu ere egin du.

Jaiotza-tasarik altuenak 2004, 2005, 2010, 2016 eta 2017an ematen dira, mila biztanleko 19 jaiotza baino gehiagorekin.

2018ko jaiotza-tasa aldiz baxuagoa da, ‰13,3 biztanleko, 87 haur jaio baitziren urte horretan.

2010etik 2018ra, udal-biztanleriaren hazkundera % 35,6koa izan bada ere (4.821 biztanletik 6.539ra igaro da), jaiotza-tasak behera egin du (‰19,5tik‰13,3ra), eta beherakada hori, neurri handi batean, udalerraren egitura demografikoak berak eragin du.

Gipuzkoako 5 mila eta 7 mila biztanle arteko jaiotza-tasak konparatuz gero ere, nabarmen geratzen da Astigarragaren jaiotza-tasa altua.

8. Taula: Gipuzkoako 5.000-7.000 biztanle arteko udalerrien jaiotza-tasa (%)

Urtea	Jaiotza-tasa (%)
Astigarraga	13,28
Aretxabaleta	9,14
Deba	6,93
Lazkao	7,67
Lezo	8,12
Mutriku	8,57
Orio	9,15
Urnietea	5,80
Urretxu	5,18
Usurbil	7,47
Villabona	7,14

Iturria: Udalmap_2019

2.5. Jaiotzen eta Herri-Eskolako matrikulazioaren arteko harremana

Astigarraga da 5.000 biztanlez gorako udalerrien artean, DBH eskaintzen duen ikastetxerik ez duen Gipuzkoako udalerririk bakarra; eta EAE osoan ere bi besterik ez dira eskaintza hori udalerrian ez dutenak, Gorliz eta Astigarraga².

Eta gabezia horrek herritarren gizarte- eta prestakuntza-dinamikan modu negatiboan eragiteaz gain, udalerrriaren ongizate eta bizi-kalitatean ere badu eragin negatiboa; besteak beste, hezkuntza-etapa horretako gazteak beste herri batzuetara mugitu behar izateak dakarren guztiaren ondorioz.

2014-2015 ikasturtean, Herri-Eskola haur-hezkuntzako lehen zikloko azken ikasturtea eskaintzen hasi zen (2 - 3 urte bitarteko gela), eta 2012an jaiotako 67 haur matrikulatu ziren. Ikasturte horretan bertan Astigarragako Herri-Eskola bera eratu zen, ordura arte Arantzazuko Ama ikastetxearen "zati bat" baitzen. Bi eraikin edo zentro zituen ikastetxe honek: bata Donostiako Martutene auzoan, eta bestea Astigarragako udalerrian.

² Iturria: Eustat. 2017-2018 ikasturteko datuak.

Herri Eskolako matrikula igoera handienak bat datoz etxebizitza berrien sustapen garrantzitsu batek, udalerrira bizitzera erakarrirako gazteek izandako **haurren jaiotzarekin**. Ikasle gehienek gurasoak ez dira Astigarragako bertakoak; horietako asko Donostialdekoak dira, Astigarragara bizitzera joandakoak etxebizitza berrien eskaintza erakargarria zelako. (Batez ere Donostiako eta Donostialdeko beste udalerrri batzuetako etxebizitzaren prezioekin alderatuta)

Herri-Eskolako hezkuntza-eragileen artean, ziurgabetasun handia sumatzen da Astigarragan berriki entregatutako eta eraikitzen ari diren etxebizitza berriek Herri-Eskolaren matrikulazioan izango duen eraginaz: zein eratako jendek okupatuko dituen etxebizitza horiek (zein adinetakoak?), izango diren jaiotzen kopurua, hezkuntza-eskarian izango duen eragina...etab.

Udalerriko hezkuntza-eragileen ustez, Herri-Eskolako ikasle potentzialen "ihes-efektuaren" zati handi bat Donostiako ikastetxeetan matrikulatzen da: La Salle, Ikasbide, Amara-Berri, Axular, etab. Guraso dezente Donostiakoak dira, Astigarragan bizi dira, baina Donostialdean lan egiten dute, eta familia (aitona-amonak) Donostian edo eskualdeko beste udalerrri batzuetan dute. Hau da, Astigarragan bizi dira, baina familiaren laguntzaren zati handi bat kanpoan dute.


Epe laburrean, ziurgabetasuna dago bi urteko ikasgelan zenbat ikasle matrikulatuko diren (2018an 87 haur jaio zirela jakinda). Nahiz eta badakiten kopuru hori Astigarragan bertan 2018an jaiotakoei dagokiela, ez Astigarragan erroldatutako 2 urteko umei.

Hezkuntza-eragileek arazo bat ikusten dute denboran zehar mantentzen zailak diren ikasleen igoera puntualetan; izan ere, neurri handi batean, seme-alaba gazteak dituzten eta/edo izateko asmoa duten "ugaltzeko adinean" dauden biztanleek etxebizitza-promozio berriak okupatzen dituztenean gertatzen dira. Une horietan, ikasle kopuruak gora egiten du nabarmen, baina epe ertainera zail gerta daiteke hori kudeatzea.

2.6. Egitura demografikoaren bilakaera: adin piramideak.


Jarraian, Astigarragako biztanleriaren hazkundea eta egitura demografikoaren bilakaera grafikoki argi uzten duten 1991etik 2019ra arteko piramideak.

2. Grafikoa. Astigarraga – 1991.




Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 1991

3. Grafikoa. Astigarraga – 2001.




Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2001

4. Grafikoa. Astigarraga – 2011.




Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2011

5. Grafikoa. Astigarraga – 2015.




Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2015

6. Grafikoa. Astigarraga – 2018.



Iturria: Eustat. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak. 2018

7. Grafikoa. Astigarraga – 2019/10/14.



Iturria: Udal errolda_2019/10/14; adin erreferentzia 2019/12/31an

Biztanleria-piramideen bidez azaldu dugun biztanleria-egituraren bilakaeran, argi geratzen da 35-44 urte bitartekoek duten pisu demografiko handia. Izan ere, 2011tik gaurdaino, udalerriko biztanleriaren %20 dira. Eta hori dela eta, piramideen oinarriek bizitasun demografiko handia dute. Beraz, data horretatik hona, 15 urtetik beherako biztanleak ere herriko biztanleriaren %20 inguru dira, horrek Herri-Eskolaren eskari potentzialean duen eraginarekin.

Biztanleria-maila horri 45-49 urteko adin-kohortea gehitzen badiogu, 35 eta 49 urte bitarteko adin-taldea biztanleriaren % 30 ingurukoa izango litzateke.

9. Taula. Biztanleriaren egituraren bilakaera adin taldearen arabera

	Urtea					
	1991	2001	2011	2015	2018	2019ko
	%	%	%	%	%	urria
0-4 urte	5,1	5,1	7,2	7,2	7,7	7,3
5-9 urte	6,1	4,3	7,1	6,8	6,6	6,6
10-14 urte	7,4	4,2	4,4	5,9	6,0	5,5
15-19 urte	9,5	5,2	3,7	3,5	4,2	4,6
20-24 urte	8,9	6,1	3,9	3,5	3,0	3,2
25-29 urte	7,8	10,8	5,8	5,7	4,3	4,5
30-34 urte	9,7	12,7	9,2	8,9	7,8	7,9
35-39 urte	7,4	9,5	11,7	10,6	10,0	10,0
40-44 urte	7,4	8,4	10,6	10,9	10,8	10,6
45-49 urte	5,9	7,3	7,6	9,0	9,5	9,6
50-54 urte	4,6	6,1	6,9	6,4	7,1	7,6
55-59 urte	5,0	5,4	5,6	6,2	5,6	5,5
60-64 urte	4,4	3,5	4,5	4,1	5,5	5,2
65-69 urte	3,0	3,5	3,7	3,8	3,6	3,7
70-74 urte	3,1	3,1	2,5	2,7	3,2	3,1
75-79 urte	2,1	2,3	2,3	1,9	2,1	2,2
80-84 urte	1,6	1,5	2,0	1,5	1,5	1,4
85 urte eta gehiago	0,8	1,1	1,2	1,6	1,7	1,6
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: EUSTAT. Biztanleen Udal-Erroldaren Estatistika (1991-2018). Astigarragako Udala (2019)

3.


Etxebizitzaren azterketa eta erakarritako biztanleria

3.1. Etxebizitzaren bilakaera

Etxebizitza kopuruak nabarmen egin du gora azken urteetan Astigarragan; zehazki % 59,7ko igoera gertatu da 2005etik 2019ra.

Urteren batean izan ezik (2013, adibidez), etxebizitzaren kopuruaren igoera etengabea izan da.

8. Grafikoa. Astigarragako etxebizitzaren bilakaera (2005-2019).



Iturria: Astigarragako Udala (2005-2014) eta Eustat. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (2015-2018)

2010etik 2018ra bitartean, etxebizitza nagusien³ hazkundera %43,3koa izan da Astigarragan (1.694tik 2.427ra pasa da). Antzeko biztanleria duten Gipuzkoako udalerrien artean gertatzen den hazkunderik garrantzitsuena da, alde handiz, baita Donostian emandakoa baino handiagoa. Higiezinaren ondarearen hazkundera handi horrek, biztanlerian izandako hazkundera garrantzitsua azaltzen laguntzen du.

10. Taula: Etxebizitza nagusien bilakaera Astigarragan eta antzeko biztanleria duten udalerrietan

Udalerriak	Urteak						Gehikuntza 2010-2018
	2010	2013	2014	2015	2016	2018	
Astigarraga	1.694	2.005	2.108	2.190	2.263	2.427	%43,3
Deba	2.948	2.936	2.944	2.949	3.004	3.055	%3,6
Lazkao	2.400	2.374	2.375	2.387	2.489	2.493	%3,9
Lezo	2.591	2.601	2.618	2.626	2.639	2.688	%3,7
Mutriku	1.786	2.009	2.114	2.118	2.145	2.143	%20,0
Orio	1.918	2.052	2.157	2.213	2.224	2.281	%18,9
Villabona	2.228	2.253	2.279	2.285	2.301	2.314	%3,9
Donostia	127.190	130.870	132.478	133.416	134.105	135.497	%6,5

Iturria. Eustat. Siadecok landua 2019

Zehazki, 2011 eta 2019. urteen artean, 984 etxebizitza berri entregatu dira, horietatik 200, 2011. urtean (%20,3) eta 467 (%47,4), azken 3 urteetan.

Entregatutako gehienak etxebizitza libreak dira (%69,2), baina izan dira baita ere tasatuak (2011n, 120 etxebizitza -%12,2) eta babes ofizialekoak (2014-2015, 183 etxebizitza – %18,6).

Eta datozen 2 urtetan, beste 200 entregatuko dira, gehien gehienak libreak (156 - %81,3).

Guztira beraz, 10 urtetan, 1.176 etxebizitza berri entregatuko dira Astigarragan.

Familia tamainako etxeak dira; horietako gehien gehienak (%90 edo gehiago), udal arkitektoak azaldutakoaren arabera, 3 logela dituzte, eta batez beste “80-82 m² eraikiak edo inguruan”.

³ Etxebizitza nagusia da pertsona baten edo batzuen ohiko bizileku moduan erabiltzen dena, urte osoan edo gehienez. Gainerakoak bigarren etxebizitzak dira edo okupatu gabeak.

11.Taula: 2011tik aurrera Astigarragan entregatutako etxebizitza kopurua, helbidea eta izaera. Eta datozen 2 urtetan entregatuko direnak.

2011-2019 artean entregatutakoak				
Entregatutako urtea	Helbidea	Etxebizitza kopurua	Izaera	Guztira urtero
2011	Aiotzategi 18	60	Etxe tasatuak	200
	Aiotzategi 20	60	Etxe tasatuak	
	Juangitenea 4	22	Libreak	
	Kontxa Etxeberria 2	32	Libreak	
	Txokotxo plaza 1	13	Libreak	
	Txokotxo plaza 2	6	Libreak	
	Txokotxo plaza 3	7	Libreak	
2012	Kontxa Etxeberria 3	26	Libreak	52
	Kontxa Etxeberria 4	26	Libreak	
2014	Urumea 10	41	BOE	110
	Urumea 6	41	BOE	
	Urumea 8	28	BOE	
2015	Aiotzategi 2	37	BOE	73
	Aiotzategi 4	36	BOE	
2016	Kontxa Etxeberria 7	27	Libreak	82
	Kontxa Etxeberria 8	27	Libreak	
	Kontxa Etxeberria 9	28	Libreak	
2017	Kontxa Etxeberria 10	42	Libreak	164
	Kontxa Etxeberria 11	42	Libreak	
	Kontxa Etxeberria 5	40	Libreak	
	Kontxa Etxeberria 6	40	Libreak	
2018	Aiotzategi 11	46	Libreak	165
	Aiotzategi 15	46	Libreak	
	Aiotzategi 9	46	Libreak	
	Zubimusu 5	27	Libreak	
2019	Aiotzategi 13	46	Libreak	138
	Aiotzategi 5	46	Libreak	
	Aiotzategi 7	46	Libreak	
Guztira entregatutakoak				984
Datozen urteetan entregatzea aurreikusitakoak				
Entregatutako urtea	Helbidea	Etxebizitza kopurua	Izaera	Guztira urtero
2020	Helbiderik gabea	100	Libreak	100
2021	Aiotzategi 1	18	BOE	92
	Aiotzategi 3	18	Tasatuak	
	Helbiderik gabea	56	Libreak	
Guztira entregatzeaz				192
GUZTIRA				1.176

Iturria: Astigarragako Udala. 2019

3.2. Etxebizitzen okupazio maila, erroldatutako pertsona kopurua eta familia nukleoaren batez besteko tamaina

Ondorengo taulan agertu bezala, etxeen okupazioa ia erabatekoa da 2011z geroztik entregatutako etxebizitzetan: Orotara, 2.750 etxebizitza daude okupatuta Astigarragan (pertsonek bat erroldatuta dagoen etxebizitzak), etxebizitza guztien %87,5 inguru; baina 2011tik 2018ra entregatutako etxebizitzetako okupazio maila altuagoa da, %90etik gorakoa kasu guztietan, eta %98-%99 ingurukoa 2015 edo lehenago entregatutakoetan.

2019. urtean entregatutakoetan baxuagoa da, baina hurrengo urtean zehar okupatuko direla aurreikus daiteke.

Guztira 7.019 pertsona erroldatuta Astigarragan; 4.880, 2011 baino lehen entregatutako etxeetan (%69,5), eta 2.139 handik hona entregatutakoetan (%30,5)

Etxe bakoitzean erroldatutakoen batez besteko kopurua jaisten doa etxebizitza zenbat eta berriagoa izan. Batez beste, Astigarragako etxebizitza bakoitzean, 2,55 pertsona daude erroldatuta; baina batez besteko hori zertxobait altuagoa da 2011 edo lehenagoko etxeetan (2,64), eta aldiz, apurka-apurka jaisten doa ordutik hona entregatutakoetan. 2019an entregatutako etxeetan, 2,08 pertsona daude batez beste.

INEren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, etxebizitzako 2,4 pertsona bizi dira batez beste (2018); Astigarragan baino zertxobait gutxiago beraz.

12. Taula: Etxebizitza kopurua, okupazio maila, erroldatutako pertsonak eta familia nukleoaren batez besteko tamaina

Entrega urtea	Etxebizitza kop.	Familia nukleoak / okupatutako etxeak	Okupatutako etxeen %	Zenbat pertsona daude erroldatuta	Familia nukleo horien batez besteko tamaina
2011 baino lehen (hurbilpena)	2.158	1.849	85,7	4.880	2,639
2011	200	196	98,0	517	2,638
2012	52	51	98,1	129	2,529
2013					
2014	110	109	99,1	260	2,385
2015	73	71	97,3	162	2,282
2016	82	80	97,6	187	2,338
2017	164	153	93,3	361	2,359
2018	165	150	90,9	334	2,227
2019	138	91	65,9	189	2,077
Guztira egun (hurbilpena)	3.142	2750	87,5	7.019	2,552
2011 edo lehenagokoetan					2,638

Oharra: 2011 baino lehen eta guztira Astigarragan zeuden etxebizitza kopurua hurbilpena da, Eustatek 2016rako emandako datuetan oinarrituta.

4.

Eskolatze-adinean dagoen biztanleria eta Herri-Eskolako ikasleak: azken urteetako bilakaera

4.1. Herri-Eskolako ikasleen kopuru orokorraren bilakaera

Herri Eskolak emandako ikasleei buruzko datuei dagokienez, esan beharra dago Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean daudenen aldean desberdinak direla. Jarraian, alde hori azalduko dugu. Herri-Eskolako ordezkariekin harremanetan jarrita, Sailaren datuak erabiltzea gomendatu ziguten, gure kalkuluak egiteko, zehatzagoak izan zitezkeelako. Horixe egingo dugu, hain zuzen ere, ikasleen oraintsuko bilakaera aztertzeke orduan. Aldiz, Herri Eskolak emandako datuak mantenduko ditugu, bertako obra-batzordeak etorkizuneko aurreikuspenei buruz planteatutako gaiak aztertzerakoan. (Batzorde horrek egindako lana beste ikuspegi batetik artikulatuz eta islatuz).

Ondorengo taulan jasota dago ikasleen datu globalei dagokienez bi iturrien artean dagoen aldea.

13. Taula: Iturri desberdinen artean ikasle kopuruan dagoen aldea

Ikasturtea	Herri Eskolatik pasatako datuetan [A]	Hezkuntza Saila [B]	Aldea [A]-[B]
2014-15	557	539	-18
2015-16	563	556	-7
2016-17	572	561	-11
2017-18	586	578	-8
2018-19	609	610	+1

Iturria: Herri Eskola eta Hezkuntza Saila. Siadecok landua

Udalak eta Herri-Eskolak emandako datuen arabera, 2014-2015 ikasturtetik 2018-2019 ikasturtera 52 ikasle gehiago izan dira Herri-eskolan, hau da,% 9,33 gehiago. Nabarmentzekoa da 2017-2018 ikasturtetik 2018-2019 ikasturtera % 3,94koa izan dela hazkundera.

14.Taula: Herri Eskolan matrikulatutako ikasle-kopuruaren bilakaera azken bost ikasturteetan

Ikasturtea	Ikasleak	Hazkundera	
		Abs.	%
2014-15	557		
2015-16	563	6	1,07
2016-17	572	9	1,59
2017-18	586	14	2,44
2018-19	609	23	3,94
Guztira		52	9,33

Iturria: Herri Eskola. Siadecok landua.

Baina gorago aipatu dugun bezala, hurrengo ataletan, Astigarragako Herri-Eskolaren inguruko hezkuntza eskaintzaren eta eskariaren dinamika sakon aztertzerakoan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren datuak erabiliko ditugu.

4.2. 2014-2015 ikasturtea

Ikasleak

2014-2015 ikasturtean, Astigarragako Herri Eskolak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskaintza zuen, eta 539 ikasle zeuden bertan, 27 taldetan banatuta.

Ikasleen %56 (302 ikasle) Lehen Hezkuntzako sei mailetan eta 14 taldetan eskolatuta zegoen. Gainerako ikasleak (237 ikasle) Haur Hezkuntzako 4 mailatan eta 13 taldetan eskolatuta zeuden.

Taldeak

Herri-Eskolak 27 talde zituen (13 Haur Hezkuntzan eta 14 Lehen Hezkuntzan).

Matrikula-kuota

Herri Eskola osoaren matrikula-bilketaren kuota, biztanleriarekiko, %68koa zen. HH etaparen kuota %74,5koa zen, eta LH etapakoa, %63,6koa.

15. Taula: 2014-2015 ikasturtea.

Jaiotze urtea	Biztanleria			2014-2015		% kuota
	Adina	2014		Ikasleak	Taldeak	
2012	2	83	HH2	66	4	79,5
2011	3	67	HH3	56	3	83,6
2010	4	84	HH4	59	3	70,2
2009	5	84	HH5	56	3	66,7
Guztira		318		237	13	74,5
2008	6	81	LH1	49	2	60,5
2007	7	74	LH2	55	3	74,3
2006	8	79	LH3	45	2	57,0
2005	9	85	LH4	50	2	58,8
2004	10	90	LH5	62	3	68,9
2003	11	66	LH6	41	2	62,1
Guztira		475		302	14	63,6
Guztira HH_LH		793		539	27	68,0
2002	12	65	DBH1			
2001	13	66	DBH2			
2000	14	50	DBH3			
1999	15	49	DBH4			
Guztira DBH		230				
GUZTIRA		1.023				

Iturria: Eustat. Udal biztanleriaren errolda (2014) eta Hezkuntza Saila. Siadecok landua

4.3. 2015-2016 ikasturtea

Ikasleak

2015-2016 ikasturtean, Astigarragako Herri-Eskolak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskaintza zuen, 28 taldetan banatutako 556 ikaslerekin. Aurreko ikasturtean baino 17 ikasle gehiago zituen. (Alegia, ikasleen % 3,1eko hazkundera, eta talde bat gehiago, 27tik 28ra igarota).

Ikasleen %57 (317 ikasle) Lehen Hezkuntzako sei mailetan eta 15 taldetan eskolatuta zegoen. Gainerako ikasleak (239 ikasle) Haur Hezkuntzako 4 mailatan eta 13 taldetan eskolatuta zeuden.

Taldeak

Herri-Eskolak 28 talde zituen (aurreko ikasturtean baino bat gehiago). Taldeei dagokienez, 2014-2015 ikasturtearekiko ondorengoa zen egoera:

- Talde bat gehiago LH1en (2tik 3ra)
- Talde bat gutxiago LH2n (3tik 2ra)
- Talde bat gehiago LH3n (2tik 3ra)
- Talde bat gutxiago LH5en (3tik 2ra)
- Talde bat gehiago LH6n (2tik 3ra)

Matrikula-kuota

Herri-Eskola osoko matrikula-bilketaren kuota %69,9koa zen, aurreko ikasturtean baino zertxobait altuagoa: %68.

HH etapako kuota %74,5ekoa zen, aurreko ikasturtekoaren antzekoa.

LH etapako kuota %66,2koa zen, aurreko ikasturtekoa baino handiagoa (%63,6).

Ikasturte honetan, kuotarik altuena HH4n erregistratu zen, eta, ondoren, HH3n.

16. Taula: 2015-2016 ikasturtea.

Jaiotze urtea	Biztanleria			2015-2016		%
	Adina	2015		Ikasleak	Taldeak	
2013	2	77	HH2	56	4	72,7
2012	3	87	HH3	67	3	77,0
2011	4	71	HH4	56	3	78,9
2010	5	86	HH5	60	3	69,8
Guztira		321		239	13	74,5
2009	6	82	LH1	53	3	64,6
2008	7	83	LH2	54	2	65,1
2007	8	71	LH3	54	3	76,1
2006	9	72	LH4	44	2	61,1
2005	10	83	LH5	50	2	60,2
2004	11	88	LH6	62	3	70,5
Guztira		479		317	15	66,2
Guztira HH_LH		800		556	28	69,5
2003	12	67	DBH1			
2002	13	66	DBH2			
2001	14	65	DBH3			
2000	15	50	DBH4			
Guztira DBH		248				
GUZTIRA		1.048				

Iturria: Eustat. Udal biztanleriaren errolda (2015) eta Hezkuntza Saila. Siadecok landua

4.4. 2016-2017 ikasturtea

Ikasleak

2016-2017 ikasturtean, Astigarragako Herri-Eskolak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskaintza zuen, 30 taldetan banatutako 561 ikaslerekin. Aurreko ikasturtean baino 5 ikasle gehiago zituen. (Hau da, ikasleen kopurua %0,8 igo zen, bi talde gehiagorekin, 28tik 30era).

Ikasleen %56,1 (315 ikasle) Lehen Hezkuntzako sei mailatan eta 17 taldetan eskolatuta zegoen. Gainerako ikasleak (246 ikasle) Haur Hezkuntzako 4 mailatan eta 13 taldetan eskolatuta zeuden.

Taldeak

Herri-Eskolak 30 talde zituen (aurreko ikasturtean baino bi gehiago). Ikasturte horrekin alderatuta, talde bana gehiago da LH2n eta LH4n.

Matrikula-kuota

Herri Eskola osoko matrikula-bilketaren kuota, biztanleriarekiko, %68,8koa zen, aurreko ikasturtean erregistratutakoa baino zertxobait baxuagoa (%68,5).

HH etapako kuota %74,3koa zen, aurreko ikasturtekoa baino zertxobait txikiagoa, orduan %74,5koa baitzen.

LH etapako kuota %65,1ekoa zen, aurreko ikasturtekoa baino txikiagoa (%66,2).

Ikasturte honetako kuota altuena HH5ekoa da.

17.Taula: 2016-2017 ikasturtea.

Jaiotze urtea	Biztanleria			2016-2017		% kuota
	Adina	2016		Ikasleak	Taldeak	
2014	2	88	HH2	63	4	71,6
2013	3	84	HH3	59	3	70,2
2012	4	89	HH4	69	3	77,5
2011	5	70	HH5	55	3	78,6
Guztira		331		246	13	74,3
2010	6	90	LH1	58	3	64,4
2009	7	85	LH2	56	3	65,9
2008	8	83	LH3	52	3	62,7
2007	9	70	LH4	52	3	74,3
2006	10	70	LH5	43	2	61,4
2005	11	86	LH6	54	3	62,8
Guztira		484		315	17	65,1
Guztira HH_LH		815		561	30	68,8
2004	12	88	DBH1			
2003	13	66	DBH2			
2002	14	66	DBH3			
2001	15	61	DBH4			
Guztira DBH		281				
GUZTIRA		1.096				

Iturria: Eustat. Udal biztanleriaren errolda (2016) eta Hezkuntza Saila. Siadecok landua

4.5. 2017-2018 ikasturtea

Ikasleak

2017-2018 ikasturtean, Astigarragako Herri Eskolak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskaintza zuen., 29 taldetan banatutako 578 ikaslerekin. Aurreko ikasturtean baino 17 ikasle gehiago zituen. (Hau da, ikasleen %3 gehiago, baina baita talde bat gutxiago ere, 30 izatetik 29 izatera igarota).

Ikasleen %54,6 (316 ikasle) Lehen Hezkuntzako sei mailatan eta 16 taldetan eskolatuta zegoen. Gainerako ikasleak (262 ikasle) Haur Hezkuntzako 4 mailatan eta 13 taldetan eskolatuta zeuden.

Taldeak

Herri-Eskolak 29 talde zituen (aurreko ikasturtean baino bat gutxiago). Ikasturte horrekin alderatuta, talde bat gutxiago izan zen LH6n.

Matrikula-kuota

Herri Eskola osoko matrikula-bilketaren kuota %72,6koa zen, biztanleriarekiko,. Aurreko ikasturtearekin alderatuta, %68,8koa. HH etapako kuota %76,2koa zen, aurreko ikasturtekoa baino handiagoa, %74,3koa baitzen. LH etapako kuota %69,9koa zen, aurreko ikasturtekoa baino handiagoa (% 65,1).

Ikasturte honetan LH1en (%83,6) eta HH2n (%78,3) eta LH2n dira kuota handienak. (Nabarmentzekoa da LH1etik LH2ra igarotzean antzematen den kuotaren jaitziera, baita LH4tik LH5erako igoera ere).

18.Taula: 2017-2018 ikasturtea.

Jaiotze urtea	Biztanleria			2017-2018		% kuota
	Adina	2017		Ikasleak	Taldeak	
2015	2	83	HH2	65	4	78,3
2014	3	85	HH3	63	3	74,1
2013	4	89	HH4	65	3	73,0
2012	5	87	HH5	69	3	79,3
Guztira		344		262	13	76,2
2011	6	67	LH1	56	3	83,6
2010	7	89	LH2	62	3	69,7
2009	8	83	LH3	52	3	62,7
2008	9	77	LH4	49	2	63,6
2007	10	70	LH5	52	3	74,3
2006	11	66	LH6	45	2	68,2
Guztira		452		316	16	69,9
Guztira HH_LH		796		578	29	72,6
2005	12	85	DBH1			
2004	13	79	DBH2			
2003	14	59	DBH3			
2002	15	63	DBH4			
Guztira DBH		286				
GUZTIRA		1.082				

Iturria: Eustat. Udal biztanleriaren errolda (2017) eta Hezkuntza Saila. Siadecok landua

4.6. 2018-2019 ikasturtea

Ikasleak

2018-2019 ikasturtean, Astigarragako Herri-Eskolak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskaintza zuen, 30 taldetan banatutako 610 ikaslerekin. Aurreko ikasturtean baino 32 ikasle gehiago zituen. (Hau da, ikasleen %5,5eko hazkundea eta talde bat gehiago).

Ikasleen %54,9 (335 ikasle) Lehen Hezkuntzako sei mailetan eta 16 taldetan eskolatuta zegoen. Gainerako ikasleak (275 ikasle) Haur Hezkuntzako 4 mailatan eta 14 taldetan eskolatuta zeuden.

Taldeak

Herri-Eskolak 30 talde zituen (aurreko ikasturtean baino bat gehiago). Ikasturte horrekin alderatuta, ondorengoa zen egoera:

- Talde bat gehiago HH2n (4tik 5era); izan ere, maila horretan 65 ikasletik 84ra igaro zen.
- LH5en talde bat gutxiago (3 izatetik 2 izatera), kopurua 52tik 47ra jaitsi baitzen.

Matrikula-kuota

Herri-Eskola osoko matrikula-bilketaren kuota, biztanlekiko, % 75,4koa zen, eta aurreko ikasturtearekin alderatuta, % 72,6koa.

HH etapako kuota %77,7koa zen, aurreko ikasturtekoa baino handiagoa, %76,2koa baitzen.

LH etapako kuota %73,6koa zen, aurreko ikasturtekoa baino handiagoa (%69,9).

Ikasturte honetan, kuota handienak HH2n (%85,7), HH3n (%82,5) eta LH2n (%85,7) eman dira. Nabarmenezkoa da HH3tik HH4ra pasatzean antzematen den kuotaren jaitsiera, baita LH2tik LH3ra pasatzekoan ikusten dena ere. (Hau da, LHko lehen ziklotik bigarrenera)

19.Taula: 2018-2019 ikasturtea.

Jaiotze urtea	Biztanleria			2018-2019		% kuota
	Adina	2018		Ikasleak	Taldeak	
2016	2	98	HH2	84	5	85,7
2015	3	80	HH3	66	3	82,5
2014	4	91	HH4	64	3	70,3
2013	5	85	HH5	61	3	71,8
Guztira		354		275	14	77,7
2012	6	87	LH1	68	3	78,2
2011	7	63	LH2	54	3	85,7
2010	8	89	LH3	64	3	71,9
2009	9	76	LH4	49	2	64,5
2008	10	73	LH5	47	2	64,4
2007	11	67	LH6	53	3	79,1
Guztira		455		335	16	73,6
Guztira HH_LH		809		610	30	75,4
2006	12	68	DBH1			
2005	13	84	DBH2			
2004	14	80	DBH3			
2003	15	54	DBH4			
Guztira DBH		286				
GUZTIRA		1.095				

Iturria: Eustat. Udal biztanleriaren errolda (2018) eta Hezkuntza Saila. Siadecok landua

4.7. Herri-Eskolako ikasleak eta taldeak 2019-2020 ikasturtean

2019-2020 ikasturtean Astigarragako Herri Eskolak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako eskaintza dauka, 31 taldetan banatutako 635 ikaslerekin. Aurreko ikasturtean baino 25 ikasle gehiago ditu (Hau da, ikasleen% 4,1,ko hazkundera, eta talde bat gehiago).

Gaur egungo ikasleen %52,6 (334 ikasle) sei mailatan eta lehen hezkuntzako 16 taldetan eskolatuta dago. Gainerako ikasleak (301 ikasle) haur-hezkuntzako 4 mailatan eta 15 taldetan eskolatuta daude.

20. Taula: 2019-2020 ikasturteko ikasleak eta taldeak

Etapak	Zikloak	2019-2020 ikasturtea			
		Adina	Ikasleak	Taldeak	Maila
HH	1.zikloa	2-3 urte	89	5	HH2
		3-4 urte	80	4	HH3
	2.zikloa	4-5 urte	68	3	HH4
		5-6 urte	64	3	HH5
		Guztira HH	301	15	
LH	1.zikloa	6-7 urte	62	3	LH1
		7-8 urte	68	3	LH2
	2.zikloa	8-9 urte	53	3	LH3
		9-10 urte	61	3	LH4
	3.zikloa	10-11 urte	47	2	LH5
		11-12 urte	43	2	LH6
		Guztira LH	334	16	
DBH	1.zikloa	12-13 urte			DBH1
		13-14 urte			DBH2
	2.zikloa	14-15 urte			DBH3
		15-16 urte			DBH4
		Guztira DBH	635	31	

Iturria: Astigarragako Herri-Eskola, 2019

Ondorengo da 2018-2019 ikasturtearekiko egoera:

- Talde bat gehiago HH3n (3tik 4ra); izan ere, maila horretan 66 ikasletik 80ra pasa da.
- LH6n talde bat gutxiago (3 izatetik 2 izatera), kopurua 53tik 43ra jaitsi baita.

2019-2020 azken ikasturte honetan 89 ikasle matrikulatu dira HH2n, baina matrikula eskatu duten 4 ikasle plazarik gabe geratu dira Herri-Eskolan. "Ezin izan zaie hartu, ez delako beste ikasgelarik jarri. Eta horren arrazoia izan da, besteak beste, dagoen espazio eskasia ere".

2019-2020 ikasturtean Herri-Eskolako ikasleen egungo banaketa, mailen, taldeen eta gelen arabera, taula honetan agertzen dena da.

21.Taula: 2019-2020 ikasturteko ikasleak, maila eta taldearen arabera

Maila	A	B	C	D	E	Guztira
HH 2	18	18	17	18	18	89
HH 3	19	21	21	19		80
HH 4	23	23	22			68
HH 5	22	22	20			64
					HH	301
Maila	A	B	C	D	E	Guztira
LH 1	19	22	21			62
LH 2	22	22	24			68
LH 3	17	17	19			53
LH 4	20	21	20			61
LH 5	23	24				47
LH 6	21	22				43
					LH	334
					IKASLEAK GUZTIRA	635

Iturria: Astigarragako Herri-Eskola, 2019.

4.8. Bilakaera-ikuspegi orokorra

Ikasleen eta taldeen bilakaera

2014-2015 ikasturtetik 2019-2020 ikasturtera, hezkuntza-eskaintza bera duten Herri-Eskolako ikasleen kopurua (HH2tik LH6ra) handituz joan da ikasturtez ikasturte.

2014-2015 ikasturtean 539 ikasle izatetik 2019-2020 ikasturtean 635 izatera igaro da, hau da, % 17,8ko igoera izan du. Horrek taldeko ikasleen ratioak handitzea eta lau talde gehitzea ekarri du (27tik 31ra).

Kontuan hartutako ikasturteetan:

- HHn, 237 ikasle izatetik 301 izatera igaro da (64 ikasle gehiago, hau da, %27ko igoera, eta bi talde gehiago: 13tik 15era).
- LHn, ikasleen kopurua 302tik 334ra igaro da (32 ikasle gehiago, hau da, %10,6ko igoera, eta bi talde gehiago: 14tik 16ra).


Datu horien arabera, agerian gelditzen da, batez ere, ikasleen hazkundera HH etapan eman dela, nahiz eta, taldeen kopuruari dagokionez, modu berean hazi diren bi hezkuntza-etapak.

22. Taula: Ikasleen bilakaera, irakaskuntza-mailen eta ikasturteen arabera.

Maila	2014-2015		2015-2016		2016-2017		2017-2018		2018-2019		2019-2020	
	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.	Ikas.	Tal.
HH2	66	4	56	4	63	4	65	4	84	5	89	5
HH3	56	3	67	3	59	3	63	3	66	3	80	4
HH4	59	3	56	3	69	3	65	3	64	3	68	3
HH5	56	3	60	3	55	3	69	3	61	3	64	3
Guztira HH	237	13	239	13	246	13	262	13	275	14	301	15
LH1	49	2	53	3	58	3	56	3	68	3	62	3
LH2	55	3	54	2	56	3	62	3	54	3	68	3
LH3	45	2	54	3	52	3	52	3	64	3	53	3
LH4	50	2	44	2	52	3	49	2	49	2	61	3
LH5	62	3	50	2	43	2	52	3	47	2	47	2
LH6	41	2	62	3	54	3	45	2	53	3	43	2
Guztira LH	302	14	317	15	315	17	316	16	335	16	334	16
Guztira HH - LH	539	27	556	28	561	30	578	29	610	30	635	31

Iturria: Astigarragako Herri-Eskola. Siadecok landua

9. Grafikoa Herri-Eskolako ikasleen bilakaera ikasturtearen arabera (2014/2015 – 2019/2020)



Iturria: Astigarragako Herri-Eskola

HHn eta LHn eskolatzeko adinean dauden biztanleen eta Herri Eskolako matrikulazio-kuotaren bilakaera.

2014-2015 ikasturtetik 2018-2019 ikasturtera, HH2tik LH6ra bitartean ikasteko adinean dagoen eta Astigarragan bizi den biztanleria, oro har, ez da gehiegi aldatu. 800 pertsona ingurukoa da (ez da gertatu beheranzko joera handia izan duten beste herri batzuetan bezala).

Udalerriko herri eskolako matrikulazio-kuotak, aitzitik, nabarmen egin du gora. Beraz, oro har, 2014-2015 ikasturtean % 68 izatetik 2018-2019 ikasturtean %75,4 izatera igaro da. HHn %74,5etik %77,7ra igaro da, eta LHn %63,6tik %73,6ra.

Udalerrian bizi diren eskola-adineko biztanleekiko ikasle-kaptazioaren bilakaerari dagokionez, honako hau izango genuke:

23. Taula: Astigarragako biztanleria eta Herri-Eskolak izandako matrikulazio-kuota, kurtsoka, mailaren arabera.

Maila	2014-2015		2015-2016		2016-2017		2017-2018		2018-2019	
	Biztanleria	Kuota %	Biztanleria	Kuota %	Biztanleria	Kuota %	Biztanleria	Kuota %	Biztanleria	Kuota %
HH2	83	79,5	77	72,7	88	71,6	83	78,3	98	85,7
HH3	67	83,6	87	77,0	84	70,2	85	74,1	80	82,5
HH4	84	70,2	71	78,9	89	77,5	89	73,0	91	70,3
HH5	84	66,7	86	69,8	70	78,6	87	79,3	85	71,8
Guztira HH	318	74,5	321	74,5	331	74,3	344	76,2	354	77,7
LH1	81	60,5	82	64,6	90	64,4	67	83,6	87	78,2
LH2	74	74,3	83	65,1	85	65,9	89	69,7	63	85,7
LH3	79	57,0	71	76,1	83	62,7	83	62,7	89	71,9
LH4	85	58,8	72	61,1	70	74,3	77	63,6	76	64,5
LH5	90	68,9	83	60,2	70	61,4	70	74,3	73	64,4
LH6	66	62,1	88	70,5	86	62,8	66	68,2	67	79,1
Guztira LH	475	63,6	479	66,2	484	65,1	452	69,9	455	73,6
Guztira HH_LH	793	68,0	800	69,5	815	68,8	796	72,6	809	75,4

Iturria: Eustat, Hezkuntza Departamentua. Siadecok landua.

5.

Herri Eskolako obra-batzordeak egindako aurreikuspenen azterketa

5.1. Ikasleak

2018-2019 ikasturtean, Herri Eskolako obra-batzordeak ikasleen eta taldeen aurreikuspen batzuk egin zituen hurrengo bost ikasturteetarako (hezkuntza eskaintza bera garatuz: HH2tik LH6ra). Aurreikuspen horiek egiteko, egileek honela jokatzen dute:

- aurtengo ikasturtean lehen hezkuntzako LH6. Maila amaitzea aurreikusten duten ikasleak kentzen dituzte (gehienak 11 eta 12 urte bitartekoak dira).
- + modu sistematikoan haur hezkuntzako maila bakoitzean sartuko direla uste duten 85 ikasle gehitzen dituzte.

Horrela, 2019-2020 ikasturteko ikasleak kalkulatzeko, 2018-2019 ikasturtean LH.6. maila egiten ari ziren ikasle guztiak kentzen dira (53 ziren), eta uste da 85 ikasle matrikulatuko direla HH2n. 2020 ikasturteko ikasleak kalkulatzeko, 2018-2019 ikasturtean LH5. Maila egiten ari ziren ikasle guztiak kentzen dira (47 ziren), eta uste da 85 ikasle matrikulatuko direla HH2n. Eta horrela, 2023-2024 ikasturtera arteko ikasleen proiektzioa egiten dute hurrenez hurren. Ez da aurreikuspenik edo proiektziorik egiten hurrengo ikasturteetarako.

Prozedura horren bidez, 2019-2020 ikasturtetik 2023-2024 ikasturtera, Herri Eskolak, gaur egun duen hezkuntza-eskaintza bera eginez, 159 ikasle gehiago izango dituela estimatzen da, gaur egungoa baino %24,8 gehiago (641etik 768ra), eta ikasturte berri bakoitzean etengabeko progresibitatean gora eginez.

Bestalde, DBHko hizkuntza-eskaintza udalerrian ez dagoenez, 2019-2020 ikasturtetik 2023-2024 ikasturtera 219 ikasle udalerritik aterako lirateke ikasketa horiek egitera. Horrek, herriari orokorrean kaltea eragiten dio, bai eta kanpora irten behar duten gazteei eta haien familiei ere.


Taula honetan aurrez azaldutakoa jaso da:

24. Taula: Herri Eskolako ikasleen bilakaera orokorra eta hurrengo bost ikasturteetarako aurreikuspena.

	Ikasturtea	Ikasle kopurua eskolan (HH+LH)			
		Ikasleak	Igoera		
			Abs	%	
Datu errealak	2014-15	557			
	2015-16	563	6	1,07	
	2016-17	572	9	1,59	
	2017-18	586	14	2,44	
	2018-19	609	24	4,09	
	GUZTIRA			53	9,51
Herri Eskolak lotutako aurreikuspenak	2019-20	(609-53)+85	641	32	5,25
	2020-21	(641-47)+85	679	38	5,92
	2021-22	(679-49)+85	715	36	5,30
	2022-23	(715-64)+85	736	21	2,93
	2023-24	(736-53)+85	768	32	4,34
	GUZTIRA			159	24,8

Iturria: Astigarragako Herri Eskola eta Udala.

10. Grafikoa. Herri Eskolako ikasleen bilakaera orokorra eta hurrengo bost ikasturteetarako aurreikuspena



Iturria: Astigarragako Herri Eskola eta Udala.

5.2. Taldeak

Gure ustez, dagozkion ratioak aplikatuta, Herri Eskolak ere ikasle-taldeen aurreikuspena egiten du 2021 eta 2022 urtera arte, etapa, ziklo eta ikasturte akademikoen arabera. Ez daukagu hezkuntza mailen arabera kalkulatzeko den ikasle kopuru absolutuari buruzko informazio banakatua, baina bai talde kopuruari buruzkoa.

Gogora dezagun honako hauek direla taldeko ikasleen ratioak, Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaraino:

HAUR HEZKUNTZA (lehen zikloa):

0 urteko gelak:	8 ikasle
1 urteko gelak:	13 ikasle
2 urteko gelak:	18 ikasle

HAUR HEZKUNTZA (bigarren zikloa): 23 ikasle

LEHEN HEZKUNTZA: 25 ikasle

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA: 25 ikasle

Gure ustez, kasu honetan, taldeak kalkulatzeko kontuan hartu diren ratioak honako hauek izan dira:

- Haur hezkuntzako lehen ziklokoa (2-3 urteko geletarako),
- Haur hezkuntzako bigarren ziklokoa (3-6 urte)
- Lehen hezkuntzako (6-12 urte)

25. Taula: Egungo taldeen banaketa eta hurrengo ikasturteetarako aurreikuspena.

Urteak		Egungo datuak		Aurreikuspenak			
		2017/18	2018/19	2019/20	2020/21	2021/22	
HH	1.Zikloa	2-3 urte	4	5	5	5	5
	2.Zikloa	3-4 urte	3	3	4	4	4
		4-5 urte	3	3	3	4	4
		5-6 urte	3	3	3	3	4
		Guztira	13	14	15	16	17
LH	1.Zikloa	6-7 urte	3	3	3	3	3
		7-8 urte	3	3	3	3	3
	2.Zikloa	8-9 urte	3	3	3	3	3
		9-10 urte	2	2	3	3	3
	3.Zikloa	10-11 urte	3	2	2	3	3
		11-12 urte	2	3	2	2	3
		Guztira	16	16	16	17	18
	Guztira: Taldeak			29	30	31	33
Guztira: Ikasleak			586	609	641	679	715

Iturria: Astigarragako Herri Eskola eta Udala. Siadecok landuta

2017-2018 ikasturtetik 2021-2022 ikasturtera Herri Eskolako talde kopurua pixkanaka handituz joango dela kalkulatu da, 30 izatetik 35 izatera pasatuz (Hori guztia, DBH eskaini gabe).

Aurreikuspen horiek 2019-2020 ikasturtea hasi baino lehen egin ziren. Gaur egun, ikasturte horretako ikasleen eta taldeen benetako kopurua ezagututa, taldeen zenbatespenarekin alderatu genezake. Egiazta dezakegu talde kopurua ikasleen kopuru globalaren antzekoa dela, zenbatetsitakoak baino 5 gehiago.

26. Taula: Datu errealen eta 2019-2020 ikasturteko estimazioaren arteko alderaketa.

Urteak		Zenbatespena Taldeak	Datu errealak		
			Ikasleak	Taldeak	
HH	1.Zikloa	2-3 urte	5	89	5
	2.Zikloa	3-4 urte	4	80	4
		4-5 urte	3	68	3
		5-6 urte	3	64	3
		Guztira	15	301	15
LH	1.Zikloa	6-7 urte	3	62	3
		7-8 urte	3	68	3
	2.Zikloa	8-9 urte	3	53	3
		9-10 urte	3	61	3
	3.Zikloa	10-11 urte	2	47	2
		11-12 urte	2	43	2
		Guztira	16	334	16
	Guztira: Taldeak			31	
Guztira: Ikasleak			641		646

Iturria: Astigarragako Herri Eskola eta Udala. Siadecok landua

5.3. Azpiegiturak

Herri Eskolako obra-batzordeak ere ikastetxearen egungo eta etorkizuneko (epe motzeko) azpiegitura premiekin lotutako zenbait gai planteatu zituen, eta guk taula honetan egituratu ditugu. Taula horretan, Herri Eskolak dituen azpiegitura premia garrantzitsuak egiaztatzen dira, izan ere, hasierako diseinua eta dimentsionamendua ez zegoen pentsatuta azken urteetan eman den ikasleen pixkanakako gehikuntzarako eta ezta aurreikusten denerako ere. Hori guztia udalerrriak izan duen biztanleria-hazkunde handiaren ondorioz eman da.

Hurrengo taulan argi eta garbi ikusten da ikasleei lekua emateko ikastetxeko beste azpiegitura batzuk erabilera desegokia edukitzen ari direla.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak ere egiaztatu du egoera hori, izan ere, udalerrian hezkuntza-instalazio berriak izateko beharra berresten du.

27.Taula: Herri Eskolako obra-batzordeak azpiegituren egungo beharren eta etorkizun hurbilaren inguruan planteatutako gaiak.

	Gaur egun				Aurreikuspena						
	2017/18		2018/19		2019/20		2020/21		2021/22		
Ikasle kopurua	587		609		641		679		715		
Jangela	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%	Zbk.	%	
	Txikia	173	44,1	172	44,1	181	43,1	191	43,1	201	43,1
	Handia	219	55,8	217	55,8	238	56,9	253	46,9	256	46,9
	Guztira	392	67% (Ikasle% jangela)	408	65% (Ikasle% jangela)	419	65% (Ikasle% jangela)	444	65% (Ikasle% jangela)	467	65% (Ikasle% jangela)
Ingelesa	3 gela		2 gela. Maila batean taldeen ikasgeletan ematen da		2 gela. Maila batean taldeen ikasgeletan ematen beharko da		Ingelesa geletan eman beharko litzateke		Ingelesa geletan eman beharko litzateke		
Musika	Gela 1 (22 talde)		Gela 1 (22 talde)		Gela 1 (22 talde)		Musika: 24 talde, beraz, 2 taldek gelan jasoko lukete		Musika gela talde batek bete beharko luke, beraz, talde guztiek gelan jasoko lukete		
Psikomotrizitatea	15 talderenentzako lekua. HH 13 talde zirenez. LH1ekoek bi hiruhilekotan erabili zuten haien artean txandakatuz		15 talderenentzako lekua. HH 14 talde daudenez. LH1ekoek hiruhileko bakarrean erabiliiko dute haien artean txandakatuz		15 talderenentzako lekua. HH 1 talde aurreikusiz. LH1ekoek ezingo lukete egin		15 talderenentzako lekua. HHko 16 talde aurreikusiz, talde batek ezingo luke eman, edo maila batean txandakatu lirateke (bi hiruhilero talde bakoitzak)		15 talderenentzako lekua. HHko 17 talde aurreikusiz, 2 taldek ezingo lukete eman, edo maila batean txandakatu lirateke (hiruhilero bat talde bakoitzak)		
Ludotekarako	Gela bat		Ludoteka ikasgela bihurtu da: ingelesa eta bikoizketa gela moduan erabiltzen ari da								
PT			PTek laguntzak emateko espazio falta dute: 3 PT daude eskolan, gela bakarra dute partekatzeke, eta eskolan espazio hutsik ez dago		PTen egoera berdin jarraituko luke		PT eta bilerak egiten egoera areagotuko litzateke		PT eta bilerak egiten egoera areagotuko litzateke		
Tutoretza			Tutoreek familiekin biltzeko gela hutsak topatzeko zailtasunak dituzte...		Tutoreek familiekin biltzeko egoera areagotuko litzateke ikastalde bate gehiago aurreikusten delako.						
	Gela hutsik ez eskolan								Talde batentzat espazio falta legoke: informatika gela kendu?		

Iturria: Astigarragako Herri Eskolako obra-batzordea eta Udala. Siadecok landua.

Agerikoa da Herri Eskolako azpiegitura nahikoa zaharkituta (zati batean batez ere) eta txikia geratu dela (leku faltagatik) egungo ikasleen eskarirako (hori berretsi egiten da ikasgela faltarekin, sarbideekin, sarrera eta irteerako eskaileretatik igarotzeko arazoekin, etab.). Gainera, udalerriko bilakaera soziodemografikoak eta sozio-urbanistikoak (etxebizitza berriak eraikitzea, immigrazioaren eta jaiotza-tasaren bilakaera, etab.) datozen urteetan Herri Eskolak garatu beharko duen eskaintzan nola eragingo duen jakin nahi da (azpiegitura, ekipamendua, langileak) herriko hezkuntza beharrak behar bezala betetzeko. Horrela, ekipamendu horren inguruko etorkizuneko erabakiak hartu ahal izango dira, haren arriskua murriztuz, ikasleei buruzko prospekzio-informazio egokia dagoelako. Informazio hori da txosten honek eskaini nahi duena.

6.

2030 arteko jaiotzen proiektzioa

6.1. Sarrera

Atal honetan, 2019 eta 2030 urteen artean, Astigarragako udalerrian izango diren jaiotza kopurua estimatuko dugu; 2030 horizonterako jaiotzen proiektzioa, alegia.

Proiektzio demografikoez hipotesi batzuk betez gero gertatuko liratekeen egoerak irudikatzen dituzte, eta erabakiak hartzeko laguntza-tresna bat ematea dute helburu. Kasu honetan, datozen urteetan Astigarragan izango liratekeen jaiotzen simulazio estatistiko bat egin da, azken urteetan udalerrian entregatutako etxebizitzetan hautemandako joerei eutsiko zaion hipotesitik abiatuta.

Hau da, 2011. urtetik aurrera Astigarragan entregatutako etxebizitzaren okupatzaileen azterketa soziodemografikoa egin da, eta haietan gertatutako jaiotzak proiektatu dira, bai urte horretatik aurrera entregatutako etxebizitzak guztiei, baita 2020an eta 2021ean entregatutako direnei ere. 2021etik aurrera ez dago aurreikusita etxebizitzaren sustapen gehiagorik egungo plangintzan.

Aztertutako alderdien artean honako hauek daude: etxebizitzaren okupazio-maila, etxebizitza horietan erroldatu ziren pertsona kopurua, egun bertan bizi diren pertsona kopurua, euren adina, seme-alaben kopurua ...

Proiektzioan zenbaki osoak erabili dira, datuen kalkulua eta irakurketa errazteko. Baina zifra horiek tarte baten batez besteko balio gisa interpretatu behar dira, $\pm 15\%$ tarte duen tarte baten batez besteko gisa.

Azterketa etxebizitza berrietan zentratu da (2011tik aurrera entregatutakoetan), etxebizitza horiek ugaltzeko adinean zegoen populazioaren handitzea eta azken urteetako jaiotza kopuruak gora egitea ekarri dutelako.

Proiektzioaren azpian dagoen hipotesia da, okupatzeko eta entregatzeko geratzen diren etxebizitzaren okupatzaileen profila azken urteetan entregatutako etxebizitzaren okupatzaileen antzekoa izango dela: nagusiki heldu gazteak, asko beste herri batetik Astigarragara datozenak, euren familia nukleoa osatzera.

Besteak beste, 2020an eta 2021ean entregatuko diren etxebizitzak ere, azken urteetan emandakoen antzekoak dira, udal-arkitektoak adierazitakoaren arabera; etxebizitza gehienek (% 90 baino gehiagok) 3 logela dituzte, eta batez beste 80-82 m² eraikita. Eta euren izaerari dagokionez ere antzekoak dira: % 82 etxebizitza libreak dira (156) eta gainerako % 18a tasatuak (18) edo babes ofizialekoak (18).

Ez da udalerrri osoaren azterketa sakonik egin, eta planteatzen den hipotesia da, 2011 baino lehen entregatutako etxebizitzetan jaiotza kopurua nahikoa egonkor mantenduko dela.

Datuak aztertzeke, Astigarragako Biztanleriaren Errolda erabili da (2019ko urriaren 14koa). Errolda horrek gaur egun herrian erroldatuta dauden biztanleen informazio zehatza eta baliotsua eskaintzen du. Horretaz gain, oso baliagarria gertatu da baita ere udal arkitektoak, entregatutako etxebizitzetan eta datozen 2 urteetan entregatuko direnen inguruan emandako informazioa.

6.2. 2011tik hona entregatutako etxebizitzetan izandako mugimenduaren azterketa

Okupazio maila

Proiektzioa garatzeko, interesgarria da azken urteetan emandako promozioetan gertatutako dinamika demografikoa ezagutzea, eta horretarako, besteak beste, etxebizitza horien okupazioa eta familia-guneen batez besteko tamaina aztertu dira (ikus 12. taula).

Taula horretan ikus daitekeenez, 2011tik aurrera entregatutako etxebizitzetan okupazio-maila oso handia da (% 90etik gorakoa 2019a baino lehen entregatutakoetan), eta 2011 edo lehenago entregatutako etxebizitzetako familia-guneen batez besteko tamaina, 2,64 pertsona etxe bakoitzeko.

Horregatik, proiektiorako, 2020an eta 2021ean entregatuko diren etxebizitzak % 96,3 okupatzea planteatzen da, eta 8-10 urteko epean etxebizitza horien familia-nukleoak batez beste 2,638 lagun izatera iristea.

Okupazio erritmoa eta okupatzaileen jatorria

Datozen urteetan entregatuko diren etxebizitzetarako egingo den proiektiorako, halaber, interesatzen zaigu etxebizitza horiek zer erritmotan okupatu diren jakitea (zenbat urte igaro diren entregatu direnetik lehenengo pertsona erroldatu den arte), eta ea pertsona horiek lehendik jada Astigarragan erroldatuta zeuden, ala orain erroldatzen diren. Hau da, lehen okupatzaile horiek Astigarragan bertan bizi ziren lehen, ala beste udalerrri batetik datozen.

Eta azpimarratzekoa da etxebizitza horietako lehen okupatzaileen %78 inguru, aurretik Astigarragatik kanpo bizi zirela, eta %22 besterik ez zirela lehendik Astigarragan erroldatuta zeudenak. 2011, 2014 eta 2015ekoetan altuagoa da lehendik Astigarragan erroldatutakoen portzentajea, baina ziur aski ez da kasualitatea; urte horietan entregatutako etxebizitza gehienak Babes Ofizialekoak eta tasatuak direlako.

Bestetik, etxe gehienak lehen bi urteetan okupatu dira (batez ere 2014az geroztik entregatutakoak).

28. Taula. Entregatu eta zenbat urtetara erroldatu da Astigarragan nukleo horretako lehen pertsona

Etxea entregatutako urtea	Lehen bi urtetan	3. eta 4. urtean	5. eta 6. urtean	7. 8. eta 9. urtean	Lehendik erroldatuta Astigarragan	Guztira
2011	44,39	11,22	4,08	7,65	32,65	100,00
2012	62,75	19,61	3,92	3,92	9,80	100,00
2013						
2014	58,72	0,92	7,34	0,00	33,03	100,00
2015	74,65	1,41	1,41	0,00	22,54	100,00
2016	66,25	7,50	0,00	0,00	26,25	100,00
2017	75,16	3,92	0,00	0,00	20,92	100,00
2018	84,67	0,00	0,00	0,00	15,33	100,00
2019	84,62	0,00	0,00	0,00	15,38	100,00
Batez beste %	68,90	5,57	2,09	1,45	21,99	100,00

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

Astigarragako biztanleriaren adina, etxebizitza entregatutako urtearen arabera

Proiektzioa aurrera eramateko hipotesi nagusi gisa, 2011tik aurrera entregatutako etxeak okupatu dituzten herritarren profila mantentzea aurreikusten denez, ezinbestekoa da etxe horietan erroldatutako pertsonen egungo adina eta etxebizitza jaso zutenekoa ezagutzea.

Baina horretara iritsi baino lehen, aipatu gaur egun, Astigarragako herritarren %69,5 bizi direla 2011 baino lehen entregatutako etxebizitzetan, eta %30,5 aldiz, 2011 edo beranduago entregatukoetan.

Eguno adinari dagokionez, Astigarragako herritarren batez besteko adina 38,4koa da. Baina alde handia dago 2011 baino lehen entregatutako etxeetan bizi diren herritarren batez besteko adina (41,5) eta 2011tik hona entregatutakoetan bizi direnen artean (29,2-33,0 artean).

Aipatzekoa da baita ere azken urteetan entregatutakoetan, 30-44 urte bitartekoek duten pisua (%43-%56 artean), 2011 baino lehenagokoetan %21era iristen ez diren artean.

Bestalde, 0-4 urteko haurren presentziari dagokionez, nabarmendu behar da oso pisu desberdina dutela 2011 baino lehenagoko etxebizitzetan (% 4,4) eta ondorengoetan (% 11,5-% 17,2); eta nola, 2011tik aurrera entregatutakoetan, haurren presentziak gora egiten duen entregatu zirenetik urte kopuruak gora egin ahala.

Honela, 2011-2012 urteetan entregatutako etxebizitzetan bizi diren herritarren %25ek, 7 urte edo gutxiago ditu (ikus 25 pertzentila); aldiz, 2018-2019an entregatutako etxebizitzetan erroldatutako herritarren %25a azpitik uzten duen adina 22 urte da.

29. Taula: Biztanleriaren adina, etxea jaso zuen urtearen arabera (% eta estatistikoak)

Entrega urtea	Biztanleriaren (egungo) adina, etxea jaso zuen urtearen arabera								Estatistikoak ⁴				
	0-4 urte %	5-9 urte %	10-14 urte %	15-29 urte %	30-44 urte %	45-60 urte %	60 edo gehiago %	Guztira %	Batez-bestekoa	Mediana	25	75	
2011 baino lehen	4,4	5,8	6,6	14,0	20,7	26,3	22,3	100,0	4.880	41,5	44	22	57
2011-2012	17,2	10,4	4,0	5,3	42,7	15,2	5,3	100,0	646	30,3	36	7	43
2014-2015	14,2	9,5	2,1	6,4	55,5	10,4	1,9	100,0	422	29,2	34	13	39
2016-2017	11,5	8,2	3,1	9,7	43,8	15,1	8,6	100,0	548	33,0	35	22	44
2018-2019	11,5	6,1	2,7	12,6	45,3	15,9	5,9	100,0	523	32,6	35	26	43
Guztira %	7,3	6,6	5,5	12,3	28,4	22,6	17,2	100,0		38,4	40	21	53
Kop	510	465	388	865	1.995	1.589	1.207		7.019				

Iturria: Astigarragako udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14

Okupatutako nukleoak, erroldatutako pertsona kopuruaren arabera

Aurretik azaldu dugu 2,55 lagun bizi direla batez beste Astigarragan okupatutako etxe bakoitzean, baina prospekzioari begira zehatzago landu nahi izan dugu zenbat pertsonako nukleoak ziren zehazki, eta zein proportziotan, etxebizitza entregatutako urtearen arabera.

Eta aipa daiteke 2011 baino lehen edo ondoren entregatutakoetan banaketa portzentuala diferente izateaz gain, 2011tik honakoetan, entregatu zirenetik urte kopuruak gora egin ahala, orduan eta pisu handiagoa dutela 3-5 pertsonen osatutako nukleoak.

30. Taula: Okupatutako nukleoak, bizi diren pertsona kopuruaren arabera

Entrega urtea	1 pertsona	2 pertsona	3 pertsona	4 pertsona	5 pertsona	6 edo gehiago	Guztira	
	%	%	%	5	%	%	%	Kop
2011 baino lehen	23,4	28,1	20,2	21,6	5,1	1,6	100,0	1849
2011	30,6	15,8	20,9	25,0	7,1	0,5	100,0	196
2012	29,4	21,6	19,6	25,5	3,9	0,0	100,0	51
2013								
2014	27,5	25,7	31,2	11,9	3,7	0,0	100,0	109
2015	29,6	31,0	23,9	12,7	2,8	0,0	100,0	71
2016	28,8	28,8	25,0	15,0	2,5	0,0	100,0	80
2017	26,8	30,1	26,1	15,0	1,3	0,7	100,0	153
2018	32,0	32,0	20,7	12,7	2,0	0,7	100,0	150
2019	31,9	41,8	15,4	8,8	2,2	0,0	100,0	91
Guztira %	25,4	27,9	21,1	19,9	4,5	1,2	100,0	
Kop	699	767	581	546	125	32		2.750

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

⁴ Estatistikoaren inguruko oharra:

- Batezbesteko aritmetikoa balio-multzoko baten batez bestekoa da, edo haren banaketa.
- Mediana banaketaren erdiko balioa da, datu multzo bat txikienetik handienera ordenatzen denean.
- 25 pertzentila, kasuen % 25a, azpitik uzten duen banaketaren balioa da. Eta 75. pertzentila, kasuen %75 azpitik uzten duen banaketaren balioa.

0-14 urte bitarteko haur eta gazteak, eta horiek bizi diren nukleoak

Etxebizitzen okupazio maila eta erritmoa, erroldatutako pertsona kopurua eta euren adinari erreparatu ondoren, hurrengo taulan 14 urtez beherakoen presentzia eta kopurua azaltzen zaigu.

Astigarragan okupatutako etxebizitzen %31,2an badago 0-14 urteko neska-mutilen bat. Orotara, 1.363. Horietatik %58,4, 2011 baino lehen entregatutako etxebizitzetan, eta %41,6, 2011tik hona entregatutakoetan.

Taula honetan ere argi ikus daiteke 2011tik hona entregatutako etxebizitzetan, zenbat eta urte gehiago pasa diren entregatu zirenetik, orduan eta altuagoa dela 0-14 urte bitartekoren bat bizi den nukleoen portzentajea.

31. Taula: Etxeen nukleoen ezaugarriak: 14 urtez beherakoen presentzia eta kopurua

Entrega urtea	14 urtez beherakoren bat duten familia nukleoak		Okupatutako etxeen %	0-14 urte bitarteko haur eta gazteak			
	Familia nukleoak / okupatutako etxeak guztira			0-4 urtekoak	5-9 urtekoak	10-14 urtekoak	Guztira
	Kop	Kop	%	Kop	Kop	Kop	Kop
2011 baino lehen	1.849	502	27,1	216	281	322	819
2011	196	96	49,0	87	54	23	164
2012	51	23	45,1	24	13	3	40
2013							
2014	109	50	45,9	35	29	3	67
2015	71	32	45,1	25	11	6	42
2016	80	29	36,3	19	20	4	43
2017	153	56	36,6	44	25	13	82
2018	150	50	33,3	39	24	12	75
2019	91	21	23,1	21	8	2	31
Guztira	2.750	859	31,2	510	465	388	1.363

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

Zein ezaugarritako pertsona dira etxe horietan egun erroldatutakoak; eta zein adin zuten etxe horietan erroldatu zirenean (estimazioak)

Atal honetako sarreran adierazi bezala, proiektzioa egiteko hipotesi nagusia, datozen urteetan Astigarragan jaioko den ume kopurua, azken urteetan jaiotakoen atzean dagoen ereduak jarraipena izatea da, etxebizitza horiek okupatuko dituzten herritarrak 2011-2019 artekoak okupatu dituztenen perfil berekoak izango direlakoan.

Hori dela eta, interesgarria da baita ere 2011tik hona entregatutako etxebizitzetan erroldatutakoak, etxebizitza entregatu zieten urtean zein adin zuten ezagutzea.

Horretarako, estimazio bat egin dugu; 2011. urtean pisua entregatu zitzaizaien orain duten adinari, 8 urte kendu dizkiogu; 7 urte 2012. urtean pisua entregatu zitzaizaien... eta horrela urtez urte. Eta estimazioa diogu, hemen ez direlako etxe horietan izan diren mugimendu eta xehetasun guztiak azaltzen (etxebizitza horiek inoiz okupatu eta orain jada ez daudenak, adibidez) baina erreferentzia modura interesgarria izan daitekeela iruditzen zaigu.

Eta taulan agertzen denaren arabera, batez beste, 2011-2019 urteen artean etxebizitza jaso zutenen ia %55ek, 25-39 urte zituzten. Ondoren datoz 40-54 urte bitartekoak, batez beste %17,7.

25-39 urtekoena da adin tarte nagusia da kasu guztietan, baina egia da baita ere 2016tik aurrera entregatutakoetan, 40-54 urtekoen pisuak.

32. Taula: Etxebizitzan erroldatu ziren pertsonen zuten adina, etxebizitza entregatu zitzaizanean, pisua entregatu zen urtearen arabera (estimazioa)

	2011		2012		2014		2015		2016		2017		2018		2019		2011-2019 bb%
	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	Kop	%	
0-4	27	6,9	5	5,3	29	12,9	12	8,6	21	12	43	12,4	43	13,1	15	8,2	9,9
5-9 urte	19	4,9	2	2,1	3	1,3	5	3,6	8	4,6	18	5,2	19	5,8	8	4,4	4,0
10-24 urte	33	8,5	7	7,4	17	7,6	8	5,7	11	6,3	28	8,1	16	4,9	6	3,3	6,5
25-39 urte	234	60,2	60	63,2	139	61,8	97	69,3	77	44	157	45,2	143	43,5	96	52,5	54,9
40-54 urte	55	14,1	14	14,7	29	12,9	18	12,9	37	21,1	66	19,0	83	25,2	39	21,3	17,7
55 edo gehiago	21	5,4	7	7,4	8	3,6	0	0	21	12	35	10,1	25	7,6	19	10,4	7,0
Guztira bizitzera joan zirenak	389	100	95	100	225	100	140	100	175	100	347	100	329	100	183	100	100,0
Etxe hauetan jaiotakoak	128		34		35		22		12		14		5		6		
Guztira egun erroldatutakoak	517		129		260		162		187		361		334		189		

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

Eta etxebizitzan erroldatu zirenean, etxebizitzako zenbat pertsona erroldatu ziren agertzen zaigu jarraian (batez beste).

Honela, azken 8 urteetan entregatutako etxebizitzetan, batez beste 2,30 pertsona erroldatu dira etxebizitzako. Hala ere, badirudi azken urteetako promozioetan baxuagoa dela etxebizitzako erroldatzen den pertsona kopurua (2,2 pertsona etxebizitzako 2018koetan eta 2,1 2019koetan).

33.Taula: Lehen aldiz erroldatutako pertsona kopurua etxebizitzako (batez beste)

	2011	2012	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Batez beste
Etxe horietan lehen erroldatuak	389	95	225	140	175	347	329	183	
Entregatutako etxeak (2018 eta 2019an, okupatutakoak soilik hartu ditugu kontuan)	200	52	110	73	82	164	150	91	
Pertsona/etxeko erroldatu zirenean	2,59	2,48	2,36	2,22	2,28	2,20	2,23	2,08	2,30

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

2011tik hona entregatutako etxeetan jaiotako umeak, eta unea (estimazioak)

Behin azken urteetan entregatutako etxebizitzetako nukleoan ezaugarriak aztertuta, jarraian etxe horietan jaiotako haur kopurua eta euren adina aztertzeari ekingo diogu.

Taula honek, proiektiorako erabiliko dugun koefizientea sortzeko informazio garrantzitsua eskainiko du: azken 8 urteetan entregatutako etxebizitzetan, etxebizitzako eta urteko bizi diren umeen ratioa. Hein batean, eta erabat zehatza ez bada ere, hurbilpen egokia dela iritzita gaude, etxebizitzako eta urteko jaio diren umeen ratioa estimatzeko (erroldak egun daudenen informazioa ematen du, eta gerta daiteke familia batzuk jada etxe horietatik alde eginda egotea, adibidez, baina proiektiorako hurbilpen egokia izan daitekeela uste dugu).

34. Taula: 8 urte arteko umeak, erroldatuta dauden etxea entregatutako urtearen eta adinaren arabera (kopuru absolutuak)

Etxea entregatutako urtea	0 urte	1 urte	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte	Guztira
2011 baino lehen	34	40	47	47	48	53	51	62	44	426
2011	13	12	25	23	14	12	15	14	7	135
2012	2	3	9	6	4	6	4	1	1	35
2013										
2014	3	9	5	11	7	9	7	2	8	44
2015	8	4	5	5	3	2	3	2	2	25
2016	2	7	3	5	2	6	5	3	4	17
2017	10	4	13	6	11	4	9	5	4	27
2018	5	8	8	9	9	9	3	4	4	13
2019	6	0	8	5	2	6	1	0	0	6
Guztira	83	87	123	117	100	107	98	93	74	728

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

Goiko taulatik abiatuta, hurrengoan, urtero adin bakoitzeko haur kopurua eta urte horretan entregatutako etxebizitza kopuruaren arteko ratioa kalkulatu dugu.

Adibide modura, 2011. urtean entregatutako 200 etxebizitzetan, 0 urteko 13 haur bizi dira. Hau da, etxebizitzako 0,065 haur jaio dira promozio hori entregatu eta 8. urtean.

35.Taula: 0-8 urte bitarteko haurrak, urte horretan entregatutako etxebizitza kopuruaren arabera (%)

Etxea entregatutako urtea	0 urte	1 urte	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte	Guztira entregatutako etxebizitzak
2011 baino lehen	0,016	0,019	0,022	0,022	0,022	0,025	0,024	0,029	0,020	2.158
2011	0,065	0,060	0,125	0,115	0,070	0,060	0,075	0,070	0,035	200
2012	0,038	0,058	0,173	0,115	0,077	0,115	0,077	0,019	0,019	52
2013										
2014	0,027	0,082	0,045	0,100	0,064	0,082	0,064	0,018	0,073	110
2015	0,110	0,055	0,068	0,068	0,041	0,027	0,041	0,027	0,027	73
2016	0,024	0,085	0,037	0,061	0,024	0,073	0,061	0,037	0,049	82
2017	0,061	0,024	0,079	0,037	0,067	0,024	0,055	0,030	0,024	164
2018	0,030	0,048	0,048	0,055	0,055	0,055	0,018	0,024	0,024	165
2019	0,043	0,000	0,058	0,036	0,014	0,043	0,007	0,000	0,000	138
Guztira										3.142

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

Eta behin ratio horiek kalkulatuta, proiektzioa egiteko erabiliko den koefizientea kalkulatu dugu. Batez beste, lehen 8 urteetan, entregatutako etxebizitzako jaio diren umeen koefizientea, alegia.

Adibidez, "lehen urtean" koefizientea kalkulatzeko: etxebizitza entregatu eta lehen urtean, entregatutako etxebizitzako jaio diren umeak, informazioa dugun urte kopuruarekin zatituta egin dugu.

$$\text{Lehen urtean} = 0,0512 = (0,043+0,048+0,079+0,061+0,041+0,082+0,019+0,035)/8$$

36.Taula: Batez beste, 2011tik hona entregatutako etxebizitzatan, urtero jaiotako ume kopurua etxebizitzako (estimazioa)

	Batez beste
1. urtean	0,0512
2. urtean	0,0529
3. urtean	0,0842
4. urtean	0,0523
5. urtean	0,0942
6. urtean	0,1051
7. urtean	0,0492
8. urtean	0,0650
Guztira	0,5541

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

6.3. Proiektzioak

2030. urtera bitartean jaioko diren umeen estimazioak egiteko, multzo desberdinak egin ditugu:

1. 2019. Urtean, urriaren 14tik abenduaren 31era jaioko diren umeen proiektzioa.
2. Astigarragan 2011 baino lehenagoko etxebizitzetan estimatutako jaiotzak.
3. 2019 bitartean entregatutako etxebizitzetan izango diren jaiotzak
4. 2020 eta 2021. urtean entregatuko diren etxebizitzetara doazenek jada izango dituzten haurrak (hauek ez dira jaiotzak, baina Herri Eskolak izango dituen ikasleen estimazioari begira kalkulatu ditugu) eta datozen urteetan jaioko diren haurrak.

2019ko urria-abenduan jaioko diren haurren estimazioa

Astigarragako Udaletik pasatako errolda urriaren 14koa izanik, lehen estimazioa 2019. urtean zehar oraindik jaioko diren umeak estimatzea izan da.

Horretarako, urriaren 14a bitartean jaiotakoei (9,5 hilabetetan, 83 jaiotza), 22 erantsi dizkiogu.

Beraz, 2019an, guztira 105 haur jaiotzea estimatu dugu.

2011 baino lehenagoko etxebizitzetan estimatutako jaiotzak.

Multzo honetako etxebizitzetan, jaiotza kopurua nahikoa egonkor mantentzea aurreikusten dugu.

Une honetan 8 urte bitarteko haur kopurua ikusita (eta egun bizi diren haur kopurua eta jaiotza kopurua nahikoa antzekoa izango dela estimatuz), batez beste, urtero 48 haur jaiotzea estimatzen dugu.

Izan ere, kontuan hartu behar da, besteak beste, azken urteetan entregatutako etxebizitzetara joan direla baita ere Astigarragan lehendik bizi eta euren etxebizitza libre utzi duten / utziko duten familiak. Eta horietan ere ezarriko direla familia nukleo berriak.

Gauzak horrela, urtero 48 hau jaiotzea estimatzen dugu.

37. Taula: 2011 baino lehenagoko etxebizitzetan bizi diren 8 urte arteko haurrak.

	0 urte	1 urte	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte	Guztira	Batez beste urtero
Guztira	43	40	47	47	48	53	51	62	44	435	48
Urriaren 14 – Abenduak 31 bitartean	9										
2019an urria 14 arte jaiotakoak	34										

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

2011-2019 bitartean entregatutako etxebizitzetan izango diren jaiotzen estimazioa

2011tik hona entregatutako etxebizitzetan, urtez urte izandako jaiotzen arabera kalkulaturako koefizienteak aplikatu dizkiegu 2011tik hona entregatutako etxebizitzetara, hurrengo 10-11 urteetan etxe horietan jaioko den haur kopurua estimatzeko.

Honela, adibidez, 2020. urtean jaioko diren haurrak estimatzeko egindako ariketa honakoa da:

38. Taula: 2020. urtean, 2011-2019 artean entregatutako etxebizitzetan izango diren jaiotzen estimazioaren kalkuluaren adibidea

Etxea entregatutako urtea	Etxe kopurua	Zenbatgarren urtea	Koefizientea	Estimatutako jaiotzak
2019	138	1. urtea	0,051	7
2018	165	2. urtea	0,053	9
2017	164	3. urtea	0,084	14
2016	83	4. urtea	0,052	4
2015	73	5. urtea	0,094	7
2014	110	6. urtea	0,105	12
2013	0	7. urtea	0,049	
2012	52	8. urtea	0,065	3
2011	200	9. urtea	0,050	10
Guztira				66

Iturria: Astigarragako Udala. Biztanleriaren errolda 2019/10/14. Siadecok landua

Eta sistema berari jarraikiz, hementxe 2021etik aurrera jaioko direnak estimatzeko ere erabilgaitako datuak:

39.Taula: Urte bakoitzean entregatutako etxebizitzako, urtero jaioko diren haurren estimazioa.

Etxebizitza entregatutako urtea	Entregatutako etxebizitza kopurua	1. urtean batez beste	2. urtean	3. urtean	4. urtean	5. urtean	6. urtean	7. urtean	8. urtean	9. urtean	10. urtean	11. urtean	Guztira
		0,051	0,053	0,084	0,052	0,094	0,105	0,049	0,065	0,050	0,040	0,040	
2011	200									10	8	8	26
2012	52								3	3	2	2	10
													0
2014	110						12	5	7	6	4	4	38
2015	73					7	8	4	5	4	3	3	32
2016	82				4	8	9	4	5	4	3	3	41
2017	164			14	9	15	17	8	11	8	7	7	95
2018	165		9	14	9	16	17	8	11	8	7	7	104
2019	138	7	7	12	7	13	15	7	9	7	6	6	94
Guztira													442

Iturria:Siadeco, 2019

Beraz, 2011-2019 artean etxebizitza jaso dutenek izan ditzaketen seme-alaben estimazioa honakoa, urtez urte:

40.Taula: Jada entregatutako etxeetan jaioko diren estimazioak

Jaiotza urtea	2011-2019 urteen artean entregatutako etxebizitzetan
2020	66
2021	61
2022	65
2023	56
2024	52
2025	45
2026	32
2027	27
2028	20
2029	12
2030	6
Guztira	442

Iturria:Siadeco, 2019

2020 eta 2021. urteetan entregatuko diren etxebizitzetara doazenek jada izango dituzten haurrak (hauek ez dira jaiotzak, baina Herri Eskolak izango dituen ikasleen estimazioari begira kalkulatu ditugu) eta horietan datozen urteetan jaioko diren haurrak

(a) Etxebizitza berrietara joango diren familietan izango diren 0-9 urteko haurrak

Azken urteetan entregatutako etxebizitzetan ikusi dugun bezala, datozen 2 urteetan entregatuko diren etxebizitzetara joango direnen artean ere izango dira 0-9 urte bitarteko haurrak. Eta horiek Herri Eskolako ikaslerian eragina izan dezaketenez, estimatzeko ahalegina egin dugu.

9 urtetik gorakoak ere izango dira batzuk, baina horiek ikastetxez aldatzea zailagoa izango dela aurreikusten dugunez, ez ditugu estimatu.

Ondorengo estimazioak egiteko ere 2011tik hona entregatutako etxebizitzetako datuak izan ditugu abiapuntu: entregatuko diren etxebizitzaren okupazio maila, batez beste etxebizitzako erroldatuko diren pertsona kopurua, eta horien artean 0-4 eta 5-9 urte bitartekoek duten pisua. Izan ere, koefiziente horiek aplikatu ditugu 2020tik aurrera entregatuko diren etxebizitzetara eta 2019an entregatu arren, urrian oraindik okupatu gabe zeuden etxebizitzetara.

Honela, 2019koetan 0-9 urte arteko 12 ume inguru estimatu ditugu, eta 28na 2020 eta 2021ekoetan.

41.Taula: 2021 bitartean okupatuko diren etxeetara bizitzera joango diren 0-9 urteko haur kopurua estimatzeko kalkuluak.

		2011-2019 artean entregatutako datuak	Urtea		
			2019	2020	2021
Entregatzeko falta diren etxeak			138 (jada entregatuak)	100	92
Epe laburrean okupatuko direnak	Okupazio maila (%)	96,3	41	96	89
Etxebizitzan lehen aldiz erroldatutako kopurua eta adina	Batez beste pertsona etxeko (2,1)	2,1	86	202	186
	0-4	9,9	9	20	19
	5-9 urte	4,0	3	8	7
	10-24 urte	6,5	6	13	12
	25-39 urte	54,9	47	111	103
	40-54 urte	17,7	15	36	33
	55 edo gehiago	7,0	6	14	13
	Guztira	100,0	86	202	187
Estimazioa	0-4 urtekoen artean, urte bakoitzeko		2	4	4
	5-9 urtekoen artean, urte bakoitzeko		1	2	1

Iturria:Siadeco, 2019

Eta estimazio hauek taulara eramanda:

42.Taula: 2020 eta 2021ean etxeak okupatuko dituztenek jada izango dituzten 0-9 urte arteko haurren estimazioa, etxea okupatuko duten urtearen arabera

Etxea okupatuko duten urtea	0 urte	1 urte	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte	9 urte	Guztira
2019an jasotakoek		2	2	2	2	1	1	1	1	1	13
2020ean jasoko dutenek		4	4	4	4	4	2	2	2	2	28
2021ean jasoko dutenek		4	4	4	4	4	2	2	2	2	28

Iturria:Siadeco, 2019

(b) Etxe berrietan jaioko direnen estimazioa

Eta etxe berrietan 2030 bitartean jaioko den haur kopurua estimatzeko, lehen azaldu eta erabilitako koefizienteak aplikatuko ditugu berriro.

Hauen arabera, 127 haur jaioko lirateke 2020 eta 2021 artean entregatuko diren etxebizitzetan, 68 inguru 2020koetan eta 59 inguru 2021ekoetan.

43.Taula: Entregatzeko falta diren etxebizitzetan, urtero jaioko diren haurren estimazioa.

Etxebizitza entregatuko den urtea	Entregatuko den etxebizitza kopurua	1. urtean batez beste	2. urtean	3. urtean	4. urtean	5. urtean	6. urtean	7. urtean	8. urtean	9. urtean	10. urtean	11. urtean	Guztira
		0,051	0,053	0,084	0,052	0,094	0,105	0,049	0,065	0,050	0,040	0,040	
2020	100	5	5	8	5	9	11	5	7	5	4	4	68
2021	92		5	5	8	5	9	10	5	6	5	4	59
Guztira	192	5	10	13	13	14	20	15	12	11	9	8	128

Iturria: Siadeco, 2019

Guztira 2030 urte bitartean jaioko diren umeen estimazioa


Beraz, taula bakarrean bilduta multzo desberdinen arabera estimatutako jaiotzak:

44.Taula: Urteka izango diren jaiotzen estimazioa – 2019-2030

	2019. urtean jada jaiotakoak eta urria-abendua bitartean jaioko direnen estimazioa	2011tik hona jada entregatutako etxebizitzetan	Lehenengo etxebizitzetan	2020-2021ean entregatuko diren etxebizitzetara etorriko direnek izango dituzten haurren estimazioa	Guztira
2019	105				105
2020		66	48	5	119
2021		61	48	10	119
2022		65	48	13	126
2023		56	48	13	117
2024		52	48	14	114
2025		45	48	19	112
2026		32	48	15	95
2027		27	48	11	86
2028		20	48	11	79
2029		12	48	9	69
2030		6	48	8	62
		442	528	128	1.098

Iturria: Siadeco, 2019

11. Grafikoa. 2000. urtetik aurrera Astigarragan izandako jaiotzak eta 2019-2030ean izango direnen estimazioa



Iturria: Astigarragako Udala, Siadeco

Honakoa jaiotzei dagokien estimazioa. Baina 0-9 urte bitarteko haur kopurua estimatzen amaitzeko, jaiotzei erantsiko diegu 2020 eta 2021 urteetan etxeak hartuko dituzten familia nukleoek jada izango dituzten adin horietako haurrak.

Eta biak batu eta taulara eramanda, honela geratuko litzateke datozen 10 urteetarako 0-16 urte arteko haur-gazte kopuruaren bilakaera Astigarragan:

45.Taula: Astigarragan izango diren 0-16 urte bitartekoen proiektzioa, 2030 bitartean

Urtea	0-16 urtekoen proiektzioa, 2019ko erroldatik abiatuta-																
	0 urte	1 urte	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte	16 urte
2019	105	89	125	119	102	108	99	94	75	94	83	72	71	73	89	78	59
2020	119	109	93	129	123	106	110	101	96	77	94	83	72	71	73	89	78
2021	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98	77	94	83	72	71	73	89
2022	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98	77	94	83	72	71	73
2023	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98	77	94	83	72	71
2024	114	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98	77	94	83	72
2025	112	114	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98	77	94	83
2026	95	112	114	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98	77	94
2027	86	95	112	114	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98	77
2028	79	86	95	112	114	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103	98
2029	69	79	86	95	112	114	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112	103
2030	62	69	79	86	95	112	114	117	126	119	123	113	97	133	127	108	112

Iturria: Astigarragako Udal Errolda eta Siadeco, 2019

6.4. Planteatutako estimazioaren ondorio orokorrak

Egin berri ditugun proiektioek Astigarragako biztanlerian eta jaiotza-tasan, eta hemendik 10 urtetara familia nukleoen batez besteko tamainan izango luketen eragina azaltzen dira azken atal honetan, datuen barne koherentziaren adierazle gisa.

Bi datuok hurbilpen gisa interpretatu behar dira; hemen kontuan hartu direnak baino faktore gehiago badira bai biztanleriaren bilakaera bai batez besteko tamaina baldintza dezaketena, (heriotza-tasa, migrazioak, ...) baina ikuspegi orokorra emateko garaian lagungarriak izan daitezkeelakoan txertatu ditugu.

Astigarragako biztanleriaren bilakaera eta jaiotza-tasa estimatua

Txosten honen lehen zatian Astigarragaren jaiotza-tasa aurkeztu dugu, 2000-2018 urteen artekoa. Ondorengoan, orain proiektatutako jaiotzekin Astigarragak izango lukeena estimatzen da, 2020-2030 artean.

Taula hau ere hurbilpen bat da; izan ere biztanleriaren bilakaera, jaiotza kopuruak ez ezik, bestelako gertakariak ere baldintzatzen dute (heriotzek, migrazio mugimenduek, etb.); baina hurbilpen gisa lagungarria izan daitekeelakoan kalkulatu dugu⁵.

Taula honen arabera, jaiotza tasarik altuena 2020-2022 artean izango litzateke; eta hortik aurrera apurka apurka jaitsiz joango litzateke, 2030.ean 7,5ean kokatuz (7,5 jaiotza mila biztanleko)

46.Taula: Astigarragako biztanleriaren bilakaera eta jaiotza-tasa estimatua (2020-2030)

Urtea	Jaiotzak	Biztanleria abenduaren 31ean	Jaiotza-tasa
2019	105	7.112	14,8
2020	119	7.404	16,0
2021	119	7.680	15,5
2022	126	7.777	16,3
2023	117	7.866	14,9
2024	114	7.951	14,3
2025	112	8.034	13,9
2026	95	8.099	11,7
2027	86	8.156	10,6
2028	79	8.206	9,6
2029	69	8.246	8,4
2030	62	8.279	7,5

Iturria: Astigarragako Udala. Siadecok landua,019

⁵ Taula osatzeko, lehen bi urteetan eraikiko diren etxe berrietara joatea estimatzen dugun helduak erantsi ditugu; eta urtero aldiz, kendu 49 pertsona; azken urteetan Astigarragan hildakoen batez besteko kopurua (Eustat).

Astigarragako familia nukleok izango duten batez besteko tamainaren hurbilpena

Eta estimatutako okupazio maila, nukleo tamaina eta jaiotzak gertatuz gero, familia nukleoen batez besteko tamaina, Astigarragako etxebizitzetan 2,58koa izango litzateke 2030. urtean⁶.

47.Taula: Astigarragako familia nukleok izango duten batez besteko tamainaren hurbilpena

Entrega urtea	2019an			2011 baino lehen jaiotakoak	2011-2019	2020-2030	2030ean	2030ean
	Etxebizitza kop	Okupatutako etxeen %	Egun okupatutako pisuetako familia nukleoen besteko tamaina	Erroldatutako helduak	Jaiotza errealak	Estimatutako jaiotzak	Guztira	Familia nukleo horien batez besteko tamaina 2030ean
2011 baino lehen	2158	85,7	2,64	4454	426	528	5.408	2,51
2011	200	98,0	2,64	389	128	26	543	2,72
2012	52	98,1	2,53	95	34	10	139	2,67
2013				0				
2014	110	99,1	2,39	225	35	38	298	2,71
2015	73	97,3	2,28	140	22	32	194	2,66
2016	82	97,6	2,34	175	12	41	228	2,78
2017	164	93,3	2,36	347	14	95	456	2,78
2018	165	90,9	2,23	329	5	104	438	2,65
2019	138	65,9	2,08	269	6	97	372	2,70
2020	100	96,3		202		68	270	2,70
2021	92	96,3		186		59	245	2,66
Guztira	3.334			7.105	682	1.098	8.588	2,58

Iturria: Astigarragako Udal Errolda eta Siadeco, 2019

⁶ Taula honetan jaiotzak bai erantsi dira, baina ez da heriotzarik kendu. Hori dela eta, biztanleria altuxeagoa da.

7.

Herri Eskolarako ikasle eta talde proiektioak: horizontea 2030

7.1. Potentzialki ikasle izan daitekeen biztanleriaren proiektioa, 2030eko horizontera arte

Hurrengo taula 2 eta 15 urte bitarteko biztanleriaren proiektioa agertzen da, 2020. urtetik 2030. Urtera. Udalerriko herri-eskola eskolatu daitekeen biztanleria da, baldin eta HH2tik DBH4ra doan hezkuntza-eskaintza eskaintzen badu. Hau da, DBH etapa barne hartzen badu.

48. Taula: Astigarragan izango diren umeak, 2030 bitartean

2-15 urtekoen proiektioa, 2019ko erroldatik abiatuta- Adina														
Urtea	2 urte	3 urte	4 urte	5 urte	6 urte	7 urte	8 urte	9 urte	10 urte	11 urte	12 urte	13 urte	14 urte	15 urte
2020	93	129	123	106	110	101	96	77	94	83	72	71	73	89
2021	109	97	133	127	109	113	103	98	77	94	83	72	71	73
2022	119	109	97	133	127	109	113	103	98	77	94	83	72	71
2023	119	119	109	97	133	127	109	113	103	98	77	94	83	72
2024	126	119	119	109	97	133	127	109	113	103	98	77	94	83
2025	117	126	119	119	109	97	133	127	109	113	103	98	77	94
2026	114	117	126	119	119	109	97	133	127	109	113	103	98	77
2027	112	114	117	126	119	119	109	97	133	127	109	113	103	98
2028	95	112	114	117	126	119	119	109	97	133	127	109	113	103
2029	86	95	112	114	117	126	119	119	109	97	133	127	109	113
2030	79	86	95	112	114	117	126	119	119	109	97	133	127	109

Iturria: Siadeco 2019

Jarraian, HH2tik DBH4ra, 2020-2021 ikasturtetik aurrera eskolatzeko adinean dauden Astigarragako biztanleak azalduko ditugu, etaparen, zikloaren eta hezkuntza-mailaren arabera. Honela, adibide gisa, honakoa genuke:

- 2020-2021 ikasturtean, 451 haur eskolatu ahal izango lirateke Haur Hezkuntzan, HH2 eta HH5 artean, eta 561 Lehen Hezkuntzako sei ikasturteetan. Beraz, Herri-Eskolak egiten duen egungo hezkuntza-eskaintzarekin, potentzialki, 1.012 izan litezke ikastetxe horretan matrikula daitezkeenak. DBHko lau ikasturteak egiteko adinean leudeke 305 lagun.

- 2030-2031 ikasturtean, 372 haur eskolatu ahal izango lirateke Haur Hezkuntzan, HH2 eta HH5 artean, eta 704 Lehen Hezkuntzako sei ikasturteetan. Beraz, Herri-Eskolak egiten duen egungo hezkuntza-eskaintzarekin, potentzialki, 1.076 izan litezke ikastetxe horretan matrikula daitezkeenak. DBHko lau ikasturteak egiteko adinean leudeke 466 lagun.

49. Taula: Astigarragako biztanleria proiektzioa etapa, ziklo eta hezkuntza mailaren arabera.

Ikas-turteak	Herri-Eskolaren egungo hezkuntza eskaintza														Etorkizuneko eskaintza posiblea					Guztira	
	Biztanleak	Haur Hezkuntza					Lehen Hezkuntza								Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza						
		1. Zikloa	2. Zikloa				Guztira	1. Zikloa		2. Zikloa		3. Zikloa		Guztira	Guztira	1. Zikloa		2. Zikloa			Guztira
		HH2 2 urte	HH3 3 urte	HH4 4 urte	HH5 5 urte	LH1 6 urte		LH2 7 urte	LH3 8 urte	LH4 9 urte	LH5 10 urte	LH6 11 urte	DBH1 12 urte			DBH2 13 urte	DBH3 14 urte	DBH4 15 urte			
2020-2021	Biztanleak	93	129	123	106	451	110	101	96	77	94	83	561	1.012	72	71	73	89	305	1.317	
2021-2022	Biztanleak	109	97	133	127	466	109	113	103	98	77	94	594	1.060	83	72	71	73	299	1.359	
2022-2023	Biztanleak	119	109	97	133	458	127	109	113	103	98	77	627	1.085	94	83	72	71	320	1.405	
2023-2024	Biztanleak	119	119	109	97	444	133	127	109	113	103	98	683	1.127	77	94	83	72	326	1.453	
2024-2025	Biztanleak	126	119	119	109	473	97	133	127	109	113	103	682	1.155	98	77	94	83	352	1.507	
2025-2026	Biztanleak	117	126	119	119	481	109	97	133	127	109	113	688	1.169	103	98	77	94	372	1.541	
2026-2027	Biztanleak	114	117	126	119	476	119	109	97	133	127	109	694	1.170	113	103	98	77	391	1.561	
2027-2028	Biztanleak	112	114	117	126	469	119	119	109	97	133	127	704	1.173	109	113	103	98	423	1.596	
2028-2029	Biztanleak	95	112	114	117	438	126	119	119	109	97	133	703	1.141	127	109	113	103	452	1.593	
2029-2030	Biztanleak	86	95	112	114	407	117	126	119	119	109	97	687	1.094	133	127	109	113	482	1.576	
2030-2031	Biztanleak	79	86	95	112	372	114	117	126	119	119	109	704	1.076	97	133	127	109	466	1.542	

Iturria: Siadeco, 2019.

Hemendik abiatuta, bi proiektzio egingo ditugu:

- Lehenengo proiektzioan ez ditugu gaur egun Herri-Eskolak dituen ikasleak kontuan hartu, eta 2030. urtera arte, HH2tik DBH4ra, Herri Eskolara joan litezkeen ikasle potentzialen proiektziotik abiatuta, hiru hipotesi aplikatu ditugu ikasle eta talde kopurua estimatzeko (hipotesi minimoa, ertaina eta maximoa)

- Bigarren proiektzioan, aldiz, gaur egun Herri-Eskolak dituen ikasleetatik abiatu gara, eta 2030 urtera arteko 0-2 urte bitartekoen proiektziotik abiatuta, hiru hipotesi aplikatu ditugu (hipotesi minimoa, ertaina eta maximoa), lehen aipaturako hezkuntza eskaintza bera aurreikusiz.

7.2. Herri Eskolarako ikasleen eta taldeen proiektzioak 2030 horizontean: ikasle potentzialak

Prozedura

Astigarragako Herri-Eskolan eskolatzeko biztanleria-potentzial hori kontuan hartuta, hiru hipotesi planteatuko ditugu (maximoa, ertaina eta minimoa) ikastetxe horrek 2030-2031 horizontean HH2tik DBH4ra bitartean izan ditzakeen ikasleak estimatuz.

Hiru hipotesi horiek eraikitzeko, matrikulazio-kuotan oinarritu gara, azken urteetan Herri-Eskolak izandako matrikulazio-kuotak kontuan hartuta finkatutakoak. Kuota horiek aldatu eta hobetu ahal izango dira, eta beste modu batera konbinatu, Herri Eskolak eskuratuko duen gizarte- eta hezkuntza-dinamikaren arabera.

Hiru hipotesi horiek garatzeko, bi lan mota egiten ditugu:

1. Ikasle potentzialei hiru matrikula-kuota mota aplikatu (maximoa, ertaina eta minimoa). Horrekin, Herri Eskolak izango lituzkeen ikasle kopuruaren hipotesia izango genuke. Azken ikasturteetan izan diren matrikula-kuotei erreparatuta, honakoak aplikatu ditugu.

50. Taula: Matrikula kuotaren hiru hipotesiak

	Matrikula kuotak		
	Minimoa	Ertaina	Maximoa
Hipotesia	71,6	77,6	85,7

Iturria: Siadeco, 2019.

2. Lortutako ikasle-kopuruei dagozkien ikasle/gelako ratioak aplikatzea, ikasturteka, maila bakoitzean izan ditzakegun talde kopuruak estimatzera iristeko. Honako ikasle/gela ratio aplikatu ditugu:
- 2 urteko gela (HH2): 18 ikasle/ gela.
 - Haur Hezkuntzako 2. Zikloa: 23 ikasle / gela.
 - Lehen Hezkuntza: 25 ikasle / gela.
 - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 25 ikasle / gela.

Maila bakoitzeko ikasleei dagokien ratioa aplikatu ondoren, talde kopurua kalkulatu dugu. Zatiketa horren emaitzak hamartarren bat badu, sistematikoki, talde/gela bat gehiago adierazi dugu.

Adibidez, LHko 51 ikaslerekin, 3 talde/gela ipiniko genuke.

Behin horiek eginda, Herri Eskolaren hezkuntza maila desberdinetarako, eta 2030 urtera bitarteko ikasturte guztietarako, ikasle eta talde-kopuruen hipotesi minimoak, ertainak eta maximoak eraiki ditzakegu.

Ikasleen eta taldeen hipotesi minimoa 2030erako horizontean

